

...eta

# Kitto!

868 zkio.  
2013-XI-28



## Dubaitik mundura hegan

Ariana Belgado

Etxebizitzen Proiektuak eta Erreformak: Iggogailuak, Fatxadak, Teilatuak...

Otaola 27 esk. Eskuma 3º ezkerre  
20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 820 407  
Email: info@eslaban.com



Adibidez...



[www.eslaban.com](http://www.eslaban.com)



**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT  
20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko arreta jaso dezazun



**Createch Medical-en**  
etorkizuna gerturaten dizugu,  
inplanteetan egiturak egiten espezializatutako  
gure enpresa berritzailearekin

 **bista eder**  
clinica dental - hortz klinika  
Bista Eder, 19 - Bajo  
20600 Eibar

Tel: **943 70 00 82**

 **innovadental** [ASPEPELOTA]  
José de Artetxe, 5  
20730 Azpeitia

Tel: **943 02 59 55**

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)

# SANANDRESETAKO JAIALDI BEREZIA

Retegi Bi / Merino  
Titin III.a / Merino II.a  
Apezetxea / Larrinaga

vs

Aritz Lasa / Rezusta  
Jaunarena / Zabaleta  
Mendizabal III.a / Peñagarikano

vs

vs

**AZAROAK**

**30**

**17.00etan**

**ASTELENAN**



[aspepelota.com](http://aspepelota.com)

**Erreserbak:**  
661 259 009  
(Olaya)  
**Lehiatilan**  
**egun**  
**berean:**  
12.00-13.00  
eta 16.00etatik  
aurrera

...eta hurrengo egunean,  
**ABENDUAREN 1ean,**  
berriro ere Katedralean

Lau eta erdiaren barruko  
**FINALAURREKOA**  
BENGOETXEA VI.a vs MTZ. de IRUJO

# ASTEAN ESANAK

"Soilik irratia, prentsa eta literatura aintzat hartuta, euskara, zentzu kulturalan, arras modernoak da, egungoa eta freskoa. Eta erabiltzen diren tonuak eta dagoen errespetu maila aipagarriak dira. Horren ifrentzua irratiko edo prentsa espainola da. España zatarra da, forma y fondo. Gaztelera modernoak Amerikan dago: Montevideon, baita Maracaibon ere"

(AITOR TXARTERINA, KOMIKILARIA)

"Gutxi gorabehera, denok konpartitzen dugu geure herriko ertzainak ez direla nobela beltzetako detektibe intuitibo, bakarti, aske eta hierakiarik gabeko pertsonak. Euskal idazlea, beraz, dilema baten aurrean agertzen da beti: zer egin poliziarekin, liburu sinesgarri bat sortzeko tenorean?"

(LANDER GARRO, IDAZLEA)

"Malcolm X beltzen eskubideen aldeko borrokalariaren ustetan, iparramerikar gizartean hainbat urtez elikatu zen desberdinaren aurkako politika bortitzaren ondorioa besterik ez zen izan JFK presidentearen eraiketa. Estatuak gizarteari erakusten dihonean desberdinak indarkeriaz trata daitezkeela, gizarteak jokaera hori barneratzen du"

(INIGO BASAGUREN, HISTORIALARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

JUANA JUAN / JUANAK JUAN.- Joandakoa joanda. "Juana juan, gehixago ez zan agertu ingurura". "Errekuverduekin bizitzekua balitz, baiña, juanak juan".

JUAN-ETORRI.- Ostera, bidaia. "Jauregiko juan-etorrixetan gehixago ez eban iñoiz aittatu ezer Dukesiari".

## eskutitzak

### AZKEN OSTIRALA (AZAROAK 29) BERRI POZGARRIEKIN

Izan ere, 25, 27 eta 29 urte pasa kartzelan eginda gero, Estrasburgeko Giza Eskubideen aldeko epaia medio, kalera irteten dihardu dozenaka euskal preso politiko.

Gainera, Mikel Zarrabe eibartarra ere, orain dela 34 urte herritik ihes egin eta 24 urte kartzelan pasa ondoren, abenduaren 1ean, astelehenean, bere kondena bete eta etxera itzuliko da, 1989tik Frantziara, La Santé, Clairvaux eta Le Muret eta gero, 1995an, Espainiako poliziaren esku laga zutenean, Valdemoro, Carabanchel, Soto del Real, Aranjuez, Daroca eta, azkenean, Terueleko kartzelak ezagutu ondoren.

Baina ezin dugu ahaztu Parot doktrinarekin dauden guztiak irten eta gero ere, 500 preso baino gehiago izango ditugula oraindik, eta batzuko egoera ta-

malgarrian, Sevillakoak kasu, euren oinarriko eskubideen alde dagoeneko 32 egun gose greban egitera behartuta. Preso gaixoak ere kartzelan jarraitzen dute eta ia denak Euskal Herritik oso hurrin.

Egoera horri buelta emateko, elkartasun itxasoa lortu behar dugu, tantaz tanta elkartu eta olatu ikaragarria, elkartasunezko tsunamia sortuz, gobernuen inbibilismoaren gainetik pasa eta Giza Eskubideak, Konponbidea eta Pakearen bidean jarriko gaituena. Bide horretan ditugun berri pozgarri hauek aprobetxatu ditzagun pilak ondo kargatu eta Preso eta Iheslariaren eskubideen alde lanean jarraitzeko.

Horregatik dei egiten dugu azaroaren 29an, Azken Ostiralean, 19.30etan Untzagatik abiatuko den Giza Katean parte hartzera.

TANTAZ TANTA EIBAR

**OHARRA: Abenduaren 5ean (6a jaieguna da) kaleratuko dugun alea bereziki izango da, 25 urte betetzen dugula-eta horren inguruko monografikoa.**

**Eskerrik asko irakurle guztioi data hori ospatzeko eman diguzuen aukera eta laguntzarengatik. Hurrengo alean, abenduaren 13koan, bueltatuko gara normaltasunera. Barkatu eragozpenak.**

**ERREDAKZIOA**



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILERA:** ...eta kito! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Ariana Delgado

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

## Plan Estrategikuan parte hartzeko aukeria

Miguel de los Toyos alkatiak, Eneko Andueza Hirigintza zifnegotzixak eta Novotec eta Leber enpresetako ordezkariak aurreko barixakuan aurkeztu eben Plan Estrategikua- ren inguruan zabalduko dan herritarren parte-hartzerako prozesua. Planak alderdi bi, hirigintza eta mugikortasuna landuko ditu eta hórretako bakotxa idazteko arduria izango daben Novotec eta Leber

enpresak lehiaketa bittartez aukeratu dittue. Halanda be, udalak abenduan zabalduko daben prozesuan parte hartzera animau nahi dittu herritar- rarak. Horrerik ekiteko billera bi antolatu dittue: abendua- ren 11n (eguztena) euskeraz egingo da billeria eta hurrengo egunian (abendua- ren 12xan, egunian) gaztelera- z. Bixak udaletxeko patixuan izango dira, 18.30xetan eta



Aurreko barixakuan egindako aurkezpenaren irudixa. SILBIA HERNANDEZ

parte hartu nahi dabenak aurretik izena emon biharko dau Pegoran edo planestrategi-

koa@eibar.net helbidera idat- ztitta (azken eguna abendua- ren 5a izango da).



## Zarrabe aske, zigor osua beteta

Mikel Zarrabe presua astelehenian Eibarrera bueltauko da, 34 urtian herritik ihes eginda eta 24 urte kartzelan emon eta gero. Epailiak ezarritako zigorra osorik beteta bueltauko da: 1989. urtiaz geroztik Frantziako La Santé, Clairvaux eta Le Muret kartzeletan egon zan lehelengo eta ondoren, 1995ian Espaiñiako poliziaren esku laga ebenetik, Valde- moro, Carabanchel, Soto del Real, Aranjuez, Daroca eta Te- ruelgo espetxietan egon da preso. Hilleroko moduan bari- xaku honetan Azken Ostirala egingo dabe, 19.30xetan Un- tzagatik abiatuko dan presuen eskubidien aldeko giza-ka- tia osatuta.

## Aldaketak autobusetan

San Andres jaixak dirala-eta, Euskotrenek aldaketak iragarri ditu autobusetan, barixaku arratsaldeko 17.00etan hasi eta domekara arte eta, bestiak beste, zapatuan ez da Udalbus zerbitzurik eskinduko. Horrekin batera, erdialdeko kaliak trafikua- rendako moztuta egongo diranez,

autobusak ibilbidia kanbixauko dabe Mendarorantz doiazen autobusak, asteburu- etako martxari jarraituta, Untzagan taxi gerale- kuaren parian geratu eta gero, bariantia hartu eta Bidebarrieta- rako bidia hartuko dabe, ohiko ibilbidiari jarraitzeko; Eibar-El- geta lineako autobusak astebu- ruetako ohiko ibilbi- dia egingo dabe; eta Eibar-Soraluze linea- kuak Untzagatik, taxi geralekuaren paretik urtengo dira. Astele- henian ohiko zerbi- tzua ezarriko dabe atzera be. Informazi- ño gehixagorako 902 543 210 telefono zen- bakira deittu edo www.euskotren.es webgunia begiratu leike.



San Andres egunian ez da Udalbus zerbitzurik eskinduko.

**BOLINTXO  
OKINTEGIA  
GOZOTEGIA**

Eguneroko  
ogia

☎ 943 20 40 66 (Errebal)

☎ 943 20 36 06 (Legarre)



**iturri**

ARDOAK



ETXERA ERAMATEN DUGU

Eibarko Merkatu Plaza - Rialto

Tel. 943 12 05 87

## Ruletados Eibarren sortu dabe

Ruletados, gaztelerazko La Ruleta de la Fortuna-n oiñarritutako dagan jokuaren doaneko lehen aplikaziñua Aitor Gutierrez eibartarrak diseinatu dau iPhone, iPad eta iPod Touch-endako. Paneletan agertzen doiazen esaldixak beste lehiakidiak baiño lehen asmatzia ahalik eta puntu gehixen eskurtzia da jokuaren helburua. Jokuak 2.000 paneletik gora dakaz, mailla eta gai ezberdiñen (kirola, musika, gaztelerazko esaerak, telebista...) arabera sailkatuta. Arcade modalidadian jokatzeko ez da interneteko konexiñorik bihar eta



"Multijugador" dalakuan, Game Center bitartez beste jokalarri batzurekin batera jarduteko aukeria dago.

## Gabonetako argixak martxan



Eibar FT-ko jokalarixak eta Merkataritza Gune Irekiko ordezkariak hartu eben parte ekitaldixan, alkatiarekin batera. SILBIA HERNANDEZ

Eibar Merkataritza Gune Irekiak eta Udalak 48.400 euro ordainduko dittue aurreko barixakutik hasit-ta Errege eguna pasau arte egunero ixotuko dittuen Gabonetako argixekin kaliak apaintzeko. Herriko kalietan ipiñittako ehun bat motibuak aurreko astian ixotu zittuen bestiak beste Eibar foball taldeko jokalarixen partehartzia euki eban ekitaldi sinbolikuan.

## autuan

### PENSIÑUEN ALDE

Jubilau eta Pensionisten alkartiak jubilau etxe guztietako bazkidieri dei egin nahi detse, gaur (eguna, hillak 28) 19.00etan Untzagan, juilau etxiaren aldamenian pensiñuen alde egingo dan alkarretartzian parte hartzeko.

### GURE ESKU DAGO

Bixar barixakua 18.00etatik 20.30xetara Untzagan, jubilaueñ aldian Gure Esku Dago ekimenaren aldeko loterixia saltzen egongo dira: txartelak 3'5 euro balixo dau eta erosten dabenak hortik 2'5 euro jokatuko dittu abenduaren 31n Bartzelonan egingo daben "catalana-gross" loterixaren zozketan, 44.152 zenbakixarekin.

### MANIFESTAZIÑUA

LAB sindikatuak deittuta, metalaren hitzarmenaren aldeko manifestaziñua egingo da zapatuan Donostian, 17.30xetatik aurrera bulebarretik abiatuta. Eskualdetik autobusa antolatu dabe eta izena emoteko LABeko egoitzara deittu bihar da (943820489).



Funeraria Ehorztetxe  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b> Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b> SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

## ESPERIENTZIAK

## EMATEN DUEN KONFIANTZA

30 urte  
Eibarko  
bizilagun-  
erkidegoekin  
konprometitua



Zerbitzua  
Gestioa  
Administrazioa

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



**EUKI**  
zerbitzu inmobiliariak

[www.euki.com](http://www.euki.com) Tel: 943 200 358

asteko

365

datua

egun, hórretzek dira euskeriak bihar dittuan egunak, geu izateko euskeriaren herrixan, hori diño Topaguniak abenduaren 3an ospatuko dan euskeriaren egunaren harira preparau daberen kanpaiñaren goiburua (365egun.eu).

## Doaneko ikastaruak Debabarrena Ekinean programan

Astelehenian prentsaurrekuan aurkeztu eben Debabarrena Ekinean, Udalak eta Debegesak alkarlanian martxan ipiñi daberen programia. Asmua eskualdian daguzen ekintzaille gaztieri laguntasuna emotia da eta, horrekin batera, oin dala gitxi sortutako enpreseri bidia egitteko bihar dittuen trebetasunetan hobetzia billatzen dabe. Horretarako, arlo diferentietan trebatzeko doaneko ikastaruak eskintzen hasitta dagoz eta abendurako hórnetzek preparau dittue: abenduaren 2, 4, 9, 11, 16 eta



18xan negozio-ideien sormena eta enpresa barrirax sortzeko pausua landuko dittue; abenduaren 11n (eguztana) salmentarato teknikeri buruzko taillarra emongo dabe eta abenduaren 19rako, barriz, ekintzailien legiari buruzko eztabaida. Ikastarueri buruzko informaziño guztia [www.ekingune.com](http://www.ekingune.com) webgunian dago eta, bestela, 943208420 telefonora deittu edo [ekingune@ekingune.com](mailto:ekingune@ekingune.com) helbidera idatzi leike.



## Probidentzia eguna ospatzen

Erretratuan ikusten dittuzuenak 1960ko hamarkadan Aldatze ikastetxian ibillitakuak dira eta aurreko zapatuan alkarrekin bazkaldu eben Azittaiñ erretegixan, Probidentzia eguna ospatzeko. Iaz talde haundixagua batu zan, baiña edozelan be ederto pasau eben eguna aurten alkaratu diran hogetik gora andrak.

**EIBARBUS**  
autobusak

- Bertoko eta nazioarteko **BIDAIK**
- Enpresa eta eskola **GARRAIK**
- **TXANGOAK**

Bulegoa: 943 20 17 33

Garajea: 943 17 34 99

Mobila: 629 48 15 92

Faxa: 943 70 16 20

Isasi 20 - behea  
[eibarbus@eibarbus.com](mailto:eibarbus@eibarbus.com)  
[www.eibarbus.com](http://www.eibarbus.com)

**OGI-BERRI  
URKIZU**

**okindegia**

**'Zure gustorako ogia'**

Urkizu, 14 - behe-ezk. / Tel. 943 53 06 91

**CATALANA OCCIDENTE** Aseguruak

Emilio de los Toyos - C046815351532K Aseguru Agentea

- ERANTZUKIZUN ZIBILA
- AUTOAK
- BIZITZA ETA JUBILAZIOA
- OSASUN ASEGURUA
- ISTRIPU BANAKAKO ETA KOLEKTIBOAK
- ARRISKU ANITZETARAKO: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa Txikiak eta Ertainak, Pymeak, Tailerrak.

[emilio.toyos@catalanaoccidente.com](mailto:emilio.toyos@catalanaoccidente.com)

**Eibarko Txikito, 8 -behea Tel. 943 200 908**

## Abenduaren 5ian ospatuko doguz ...eta kitto!-ren 25 urtiak

Gaur eguena da, inprentara juateko eguna, baiña San Andres eguna dala-eta, egun bat aurreratu bihar izan dogu esku artian dakazun aldizkarixa. Datorren astian bar-diñ egingo dogu, baiña gaiñera ale bene-tan berezixa izango da hurrengua: ...eta kitto! aldizkarixak 25 urte betetzen ditu abenduan eta datorren astia aukeratu dogu hori ospatzeko. Abenduaren 5ian, arratsaldeko 19etan egingo dogu ekitaldixa udaletxeko pleno aretuan.

Urte guzti hónetan, eguen arratsaldiak Oñati aldian emon ditu aldizkarixak, Gertu inprimategixan. Millaka orri kaleratu izan doguz, hamarnaka lagunek hartu dabe parte proiektuan eta egindako ibilbidia gogoratu bihar dogula pentsatu dau ...eta kitto! Euskara Elkarteko Zuzendaritza Batzordiak.

### Omenduak

1988ko abenduan kaleratu zan lehenengo alia; Eibarko Udaleko euskara zerbitzuetik bultzatu zan proiektua. 1992. urtera arte hillero-hillero banatu zan, Eibarko kiosketan. Horren ostian etorriko zan aldizkarixak bizittako jauzi haundiña, hamabostekari izatera pasatuko zan, ...eta kitto! Euskara Elkarte sortu barrixak kudeatuta. Lehelengo lau urtietan egindako lana goguan hartzia erabagi dogu eta Udalian

biharrian zeguazen Fernando Muniozguren, Begoña Bilbatua eta Begoña Azpiri izango dira datorren asteko omenduak, 1988xan Eibarko alkate zan Aurora Baskaranekin batera. Laukote horrek hartutako erabagi eta lan barik ez zan posible izango gaur egun esku artian dakaguna.

### Bideo-dokumentala

Ale berezixa kaleratuko dogu datorren astian; barixakuero egitten dogun moduan, eibartarrak buzoietan jasoko dabe, baiña aurten beste euskarri bat erabiltzia be pentsatu dogu. Ane Urkiola zuzendaritzakidiak beregaiñ hartu dau bideo hau egitteko biharra. Hamabost lagun elkarrizketatu doguz eta antziñako fotografixak aprobetxatuta, 25 urte hauetan egindako lanak eta esperientziak batzen saiatu gara; gauza asko euki dabe kontatzeko elkarrizketatu danak: Serafin Basauri, Juan Andres Argoitia, Esther Otxandiano, Patxi Lejardi, Aurora Baskaran, Oier Araolaza, Maria Arano, Amaia Rodriguez, Iker Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Ana Aizpurua, Pili Iburguren, Ainhitze Muniozguren, Koldo Mitxelena eta Silbia Hernandez.

### Bazkideei gonbidapen berezixa

Hori danori kontuan izanda, dei berezixa egin nahi detsagu ...eta kitto! Euskara



*Ehungarren alerako etaratako fotografixia. Eskuetan ...eta kitto!-k izandako hiru formatuak: hillabetekarixa, hamabostekarixa eta astekarixa.*

Elkarteko bazkidieri. Bazkide guztiak dagoz gonbidatuta abenduaren 5ian, udaletxeko pleno aretuan, arratsaldeko 19etan egingo dogun ekitaldira. Etortzeko asmua izanez gero, konfirmatzea eskertuko genduke. Horretarako komunikabideak@eta-kitto.com helbidera idatzi edo 943 20 67 76 telefonora deitzia eskertuko genduke.

**METALEZKO ERAIKUNTZAK ETA ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA**

**ulmar**  
S.L.

metalezko eraikuntzak

Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak burdin eta altzairu herdoilgaitzetan.

TAILERRA: Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoa: 943 121 367 Faxa: 943 120 150

ERAKUSKETA: Urkizu, 26 - behea  
Tfnoa. eta Faxa: 943 127 401

Info@ulmar.net - www.ulmar.net

*Beti Berria Bezala*

**%15eko deskontua**

www.belaustegi.com

**Belaustegi** JATETXEA  
**BASERRIA**

**ELGOIBARKO San Miguel gainean**  
**Tel. 943 74 31 02**

*Jaietan ondo pasatu!* **San Andres** *Eta mahaian gozatu!*  
**MENU BEREZIA**



ESKUMUTURREKO  
BOLATXO BELTZA:  
21 euro



LAUBURU KARRATUA  
BELARRITAKOAK:  
5,20 euro



EGUZKILORE BELARRITAKOAK:  
18 euro

KUTXAK (LAUBURU):  
txikia 2,50 euro  
ertaina 3 euro  
handia 7 euro



ESKUMUTURREKO  
EGUZKILORE LARRUA:  
44 euro



LAUBURU OBALOA  
BELARRITAKOAK:  
5,20 euro



GILTZAK ZINTZILIKATZEKO:  
10,60 euro



ZUREZKO HAUTSONTZIA:  
9,30 euro



EZ DA POSIBLE KAMISETA:  
18 euro



UMIENDAKO ESAIT  
KAMISETA:  
20 euro



UMIENDAKO ESAIT  
KAMISETA:  
20 euro



BURDINEZKO MAHAI GAINEKO  
LAUBURU HANDIA:  
11,50 euro



EURITAKOAK:  
11,70 euro



EUSKERAZ BIZI NAHI  
DUT KAMISETA:  
10 euro

NESKAK:  
S, M, L  
MUTILAK:  
S, M, L, XL



BURDINEZKO MAHAI  
GAINEKO LAUBURU  
TXIKIA:  
8,25 euro

Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAREN bulegoan (Urkizu, 11)  
**ASTELEHENETIK BARIKAKURA  
10.00-13.00/16.30-19.30**

**IKUSI,  
AUKERATU eta  
EGIN ENKARGUA!**



KITTO-AMANTALA:  
10 euro



PARETAN JARTZEKO: 6 euro

KITTO-AMANTALA:  
15 euro



ATERAKO ALFONBRA: 12 euro



ARBOLARAKO  
OLENZERO:  
3,75 euro



# ...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako KATALOGOA

KATALOGOAK DITUEN IRABAZIAK EUSKERA SUSTATZEN ERABILIKO DITUGU



Euskara Elkartearen




KARRIKIRI  
IRUÑEKO EUSKALDUNON ELKARTEA



ALTXATU: 10 euro



BIDE ERTZEAN: 15 euro



MIKEL LABOA: XORIEK: 16,70 euro



MIKEL LABOA: GERNIKA: 16,70 euro




NAPOKA IRIA: 15,55 euro



RUPER ORDORIKA: 16,70 euro



SU TA GAR: 15 euro



JAIOBERRIAREN LIBURUA: 24,50 euro



KUADERNO  
OHARRAK  
LAUBURU:  
6 euro



KUADERNO  
LAUBURU  
TXIKI:  
8 euro



KUADERNO  
HELBIDEAK:  
8 euro



ARGAZKIRAKO  
ALBUMA:  
txikia 12 euro  
handia 18 euro

DISKO,  
DVD ETA  
LIBURUAK



ARGIA TAKOA:  
9 euro

EUSKARRIA:  
5 euro



## Foxtter tabernak irabazi du pintxo lehiaketa

Arrate Kultur Elkarteak antolatutako X. Pintxo Lehiaketako epaimahaiak (Josu Gimenez, Ruben Erro eta Unai Magunazelaia) astelehenean eman zuen ezagutzera aurtengo irabazleen zerrenda: Pintxo Onenari Saria Foxtter tabernaren Onddo Sekretua izan da; bertako produktuekin egindako pintxo onenari saria Akara tabernaren Udazkeneko Ferrero Rocher; horrekin batera aipamen berezia egin diete El Ambigu tabernaren Coco Chanel, Txoko tabernaren Kapritxoa eta Aterpe tabernaren Mozkor Pato pintxoei; be-

zeroek boto bidez erabakitzen duten publikoaren saria azken horrentzat, Aterpe tabernarentzat izan da. Aurtengo edizioan 27 tabernak hartu dute parte eta irabazleei saria San Andres egunean banatuko diete. Antolatzaileek parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie "pintxoak prestatzeko eta aurkezteko orduan ipini duten ilusioarengatik eta egindako lan izugarriarengatik" orduan eta, horrekin batera Eibar Merkataritza Gune Irekiari eta udalari emandako laguntza eskertu nahi die.



Foxtter tabernako onddo sekretua.  
MIGUEL LOITXATE




Eibarko Txirrindularien Elkarteak egun osoko lana izan zuen. LEIRE ITURBE

## Txistorra egun jendetsua

Azken egunetan euria bota eta bota ibili da eta zapatuan ez ziren libratu Eibarko Txirrindularien Elkarteakoak. Hala ere, Untzagako karpak babestuta aurreikusitakoari jarraitzeko modua izan zuten eta jendeak ondo erantzun zuen, Txistorra Egunaren hamai-kagarren ediziora gerturatuta. Egun osoan, goiz eta arratsalde egon zen pintxoak jateko aukera eta jaiaren amaieran zozketa egin

zuten. Zerbaki sarituak zeintzuk izan diren ezagutzera emateko kalean kartelak ipini dituzte eta Txirrindularien Elkartearen webgunean azken lau zenbakiak sartuta saririk irabazi den ala ez jakiteko aukera dago. Irabazleek abenduaren 3tik 14ra bitartean (jai egunak izan ezik) jaso dezakete saria, arratsaldeko 19.00etatik 20.00etara Eibarko Txirrindulari Elkartearen (Pagaegi kalean).

## Erreginak frontoia bete zuten



Dios Salve a la Reina taldeak Astelena frontoia betetzea lortu zuen, Queen taldearen omenezko kontzertuan. Jai Productions eta Lambrettak antolatutako ikuskizunera joandakoek ondo baino hobeto pasatu zuten Freddy Mercury zenak taula gainean erabili ohi zituen jantziak soinean jantzita jardun zuen abeslariaren eta berari laguntzen izandako musikariaren emanaldian.



Emanaldiak Astelena frontoia bete zuten. LEIRE ITURBE



# ZURICH

## Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

## Bakailaoa prestatzen txapeldun

Azkenean, 30 bikotek hartu zuten parte domekan Untzagan jokaturako sanandresetako bakailao txapelketan eta Mireia Alonsok, Josu Mugerzak, Xabier Osak, Josema Azpeitiak, Jesus Artolak eta Mateo Guilabertek osatutako epai-ma-

haiak lehen saria M<sup>a</sup> Luz Valencia eta Pillipa Milikuari ematea erabaki zuen. Bigarren saria Arrate Elizondo eta Valvanera Turzak osatutako bikoteak eskuratu zuen eta hirugarrena, berriz, Iñaki Lejardi eta Ibon Rokandioentzat izan zen.



Bakillauaren Kofradixako ohorezko kofrade berriak zin egiten. LEIRE ITURBE



## Hotzaren gaintik, musikariek Santa Zezilia ospatu zuten

Asteburuko euriak eta gaueko hotzak ez zuten lortu herriko musikariren kemena moteltzea eta, urtero lez, Santa Zezilia ospatzera irten ziren: barixakuan Sostoa abesbatza eta Eibarko Kantuzaleak kalejiran abesten ibili ziren. Zapatu arratsaldean Ustekaberen txanda izan zen eta gauerdian Cielito Musika Bandak udaletxeko arkupeetan serenata eman zuen. Eta domekan oraindik ere musika eskaintzeko gogoia izan zuten: Usartzako txistulariek goizetik kalejira egin zuten eta eguerdian Santa Zezilia kontzertua eman zuen musika bandak Coliseoan.



### ARTEZKETA ZILINDRIKOKO LANGILEA

Goimek zehaztasun handiko mekanizazio lanetan aditua den kooperatiba bat da. Mekanizaziorako irtenbide osoak, kalitatea, doitasuna eta zerbitzua bermatzen dugu. Gure aktibitatea makina erraminta, aeronautika eta trenbide sektoreentzako doitasunezko pieza handien mekanizaziora bideratzen dugu.

**Zereginak:** CNC artezketa zilindrikoko makinak eta programazioa menperatzea. Doitasun handiko bukatze lanak menperatzea.

**Eskatzen da:**

- Titulazioa: Goi-mailako heziketa-zikloko trebakuntza.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanposturen batean.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Autonomia eta arazoak konpontzeko gaitasuna.
- Egiaztapen tresnak erabiltzeko ezagutzak izatea.

**Eskaintzen da:**

- Berehalako inkorporazioa.
- Esperientzia eta gaitasunen arabera soldata.

**Epea:** Interesatuak bidali CV Giza Baliabide departamentura: [ecarballo@goimek.com](mailto:ecarballo@goimek.com)

**DANOBATGROUP**

## Hirutan zatitutako azokia karpak babestuko dabe

San Andres Egunian egingo dan azokiak 35 urte beteko ditte aurten. Zapatuan 09.30xetan hasiko da biharrian epai-mahaixa 72 postuak banan-banan ikusi eta gero sarixa jasoko dabenak zeintzuk diran erabagitzeko. Aurtengo azokan produktua saltzen jardungo dabenen artian gaztagilliak izango dira nagusi, hogeitazazpi postutan gazta eskinduko dabe-eta; barzaxekin hamazazpi postu ipiñiko dittue eta ogixarekin beste horrenbeste; bost postutan eztixa salduko dabe, hirutan fru-

tak eta txakoliñak eta lorak postu bana eukiko dabe.

Eibarko basarrixak azokan baiño gehiago ganadu erakusketan hartuko dabe parte, Errebalen 09.30xetatik aurrera egingo daben ganadu erakusketarako animalixak gure herriko hamabi basarritik erundakua izango dira-eta. Iaz animalixak Errebalen erakutsi zittuen eta, jendiak kanbixua ondo hartu ebalu ikusitta, gune hori San Andres eguneko programaziñua osatzen daben ekitaldixetako batzuk bertan

egittekero aprobetxatzia pentsau dabe antolatzailliak. Gaiñera, jendia Errebalerañiño erakartzeko asmuarekin, animalixak bertara eruatiarekin batera 12.00xetan hasiko dan aizkolari txapelketia be bertan jokatzia erabagi dabe.

Danera 1.500 metroko azaleria beteko dabe San Andres egunerako karpak: **Untzagan**, udalereko plazan aurreko as-



Barzaxiak eta frutak Untzagan ikusi (eta erosi) ahal izango dira.



Ganadu erakusketiak Errebalen jarritako karpan izango dau bere tokixa. LEIRE ITURBE



Plazara Dantzara Erromerixia eguerdiko 12.30xetan hasiko da. LEIRE ITURBE

teburu bixetan ipiñitta egon dan karparen barruan **barzaxiak eta frutak** saltzen egongo diran postuak ipiñiko dittue. Eta **azokako beste postuak Txaltxa Zelaixan**, 50x15 metroko karparen barruan egongo dira. **Errebalen** 30x10 metroko hirugarren karpatek **ganadu erakusketia eta San Andres txapelketan bikoteka jardungo daben aizkolariak** babestuko ditte.

Azokatik kanpora jaixa girotzeko beste jarduera batzurekin jantzi dabe San Andres eguneko programia: eguardixan **Narbaiza eta Gorrotxategi bertsotan** hasiko dira eta eurekin batera **Jainaga eta Narbaiza trikitalarixak** euren emanaldixa eskintziari ekingo detse. Ordu erdi geruago Kezka dantza taldekuak eurekin bat egingo dabe, Untzagan **Plazara Dantzara erromerixia** egittekero. Eta bazkaltzera juateko ordua aillegau baiño lehen, 13.00ak aldiñan, **banatuko detsez sarixak** sanandresetako lehiaketak irabazi dittueneri eta, zelan ez, San Andres Azokan sarixa eskuratzen dabenak be orduantxe jasoko dabe euren premixua.



- Pin-ak  
- Metxeroak  
- Kamisetak  
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta  
ENPRESETAKO OPARIAK

**Armagin 3 - behea**

eta faxa: 943 70 14 97      Publi.resa@euskalnet.net

Radio Eibar

CADENA  
SER

104,0 FM



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1      Tel. 943 20 33 29

# San Andres Zoriontsuak!

ONDO PASA JAIXAK

**EZ DOKU**

GIRORIK ONENEAN

EIBAR PUB

Toribio Etxebarria, 18

## TXURRUT

*Zutik, eserita, barran  
hausnartzen, berbetan, abesten,  
egunez, gauetz, asteburuan, lanegunetan,  
1,2,3... San Andres bete diru!*

**SOKOA**

EIBAR-ONDARRU

birjiñape, 1 behea  
tel. 943 20 71 00

**SOKOA**

o  
n  
d  
o  
p  
a  
s  
a  
u

**BALKOI**

BAR

sanandresak

**PINTXO BEREZIAK**  
goizeko 10.00etatik  
zabalik

**URKIZU, 11**

**PUB**

**VIVALDI**  
**PUB**

Eibarren  
San Juan, 9

SAN ANDRES JAI ZORIONTSUAK

*Aguñaspi*

**ONDO PASA**  
**sanandresak!!!**

Urkizu pasealekua, 22  
Tfnoa. 943 20 06 08

**Zubi-Gain** URKIZUKO DORREETAN

Urkizu, 11-behea Tfnoa. 943-254060

**Ego-Gain** ANBULATEGIAREN AURREAN

Kafetegia

J. Etxebarria, 2 Tfnoa. 943-207165

*Ogitarteko, kazuelita, tapa eta pintxo berezietan*  
**E S P E Z I A L I Z A T U A K**

Aurten ofizialki Durangoko Azoka izatera pasatu du lehenago Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azoka zena. Horrekin batera, aurrerantzean "kulturaren plaza" goiburua atxikituta eramango du. Datorren astean, abenduaren 5tik 8ra zabalduko ditu ateak 48. edizioa beteko duen azokak eta egun horietan 130 bat ekitaldi eskainiko ditu Gerediaga Elkartearen eskutik antolatutako azokak, aurkezpenak, emanaldiak, tailerrak, hitzaldiak eta bestelako ekitaldiak tartean.

Landako Erakustazokaren 3.700 metro karratuetan 353 nobedade egongo dira salgai, gehienak liburuak (226), eta horiekin batera, diskoak (68), aldizkariak (36), bideoak (5) eta bestelako materialak (18) ere erosteko moduan izango dira. Guztira, 122 partaidek (argitaletxe, disketxe, banatzaile, elkarte eta erakundek) hartuko dute parte aurten, aurreko edizioan baino bost gutxiago, eta 238 stand egongo dira, iaz baino 15 gutxiago.

## Durango kulturaren plaza izango da berriro

Zuriaren gainean dantzan egiten duten berbeekin osatu du aurtengo azokarako kartela Itziar Okariz artista donostiarrak. 48. edizioa beteko du aurten abenduaren 5etik 8ra bitartean egongo den Durangoko Azokak, euskal kulturaren eskaparate nagusiak. Aurreko astean egin dako aurkezpen ofizialean Nerea Mujikak (Gerediaga) eta Itziar Eliasek (Ehaze) azokaren egitaraua, Argizaiola saria eta herrialde gonbidatua zeintzuk izango diren azaldu zituzten. Edizio honetan William A. Douglas antropologoak jasoko du saria, "euskal kultura eta diaspora ikertu eta zabaltzeagatik". Abenduaren 6ko galan emango diote, Szenatokian. Herrialde gonbidatua, berriz, Eskozia izango da eta, beraz, azoka egunetan herri horretako kultura eta politikari buruz jardungo dute berbetan hainbat ekitalditan.

Aurten azokaren lehen eguna, abenduaren 5a, laneguna da eta, hori aprobetxatuta ikastetxei azokara joateko gonbidapena egin diete azokako antolatzaileek. Gainera, Durangoko Azokak aurten ikasleen eguna indarberritu nahi izan du eta, horretarako, egitarau zabalarekin hornitu dute. Besteak beste, ikasleek une batez idazle edo ilustratzaile bihurtzeko aukera izango dute, kazetari lanetan jardutekoa, web orrialdeak sortzeko, antzezlan bat nola



Abenduaren 5etik 8ra arte iraungo du aurten Durangoko Azokak, 10.30etatik 20.00etara.

sortzen den ikastekoa... Egun horretarako egitaraua 10.00etan abiatuko da. Gainontzeko egunetan 10.30etatik 20.00etara zabalduko ditu ateak azokak.

Bertan aurkituko ditugun nobedadeen artean oso ezagunak diren sortzaileen lanak egongo dira. Batzuk aipatzearen, Bernardo Atxaga, Joxean Agirre, Leire Bilbao, Koldo Izagirre, Karmele Jaio, Miren Agur Meabe, Su Ta Gar, Zea Mays, Anari, Arkada Social, Audience, Bide Ertzean, Gari, Ken Zazpi, Fermin Muguruza eta Ruper Ordorika Durangon izango dira lanik berrienak aurkezten. Baina, horiekin batera, horren ezagunak ez diren egile berriak ezagutzeko aukera

ere eskainiko du azokak. Landako Gunean gunerik handiena hartuko duten azoka eta areto nagusiarekin batera, beste gune batzuk aurkituko ditu bisitariak: Ahotsenea (literatura eta musika sortzaileen gunea), Iru-dienea (zinearen gunea, aurten Kameratoia film laburren rallya ere hartuko du), Kabi@ (teknologia eta eduki libreen gunea), Plate-ruena kafe antzokia, Saguganbara (ume eta gazteekiko transmisioa lantzeko gunea) eta Szenatokia (arte eszenikoen aretoa, abenduaren 8an antzerki maratoia hartuko du). Egun bakoitzerako egitarau osoa eta beste informazio guztia durangokoazoka.com helbidean aurkituko duzue.



Baimendutako  
harategia  
Euskal Okela  
Carnicería  
autorizada

Bidebarrieta 20  
Tlfno: 943 20 16 69



## Eibartarren musika Durangon

Durangoko Azokak 50 zuzeneko baino gehiago eskainiko ditu bi egunetan Ahotsenean eta Plateruenan. 48. edizioaren eskaintza nagusienetakoa, beraz, musika izango da: estilo askotariko euskal bakarlari nahiz taldeen kontzertuekin. Plateruenak astebete lehenago abiatuko du bere programazioa, bihar Ruper Ordorikak "Azukre koskorrak" disko berria aurkeztuko duelako, eta etzi On taldearen txanda izango da. Azokaren lehenengo egunean (abenduaren 5a, eguna) Ahotseneak Ikasleen Egunarekin bat egin eta **EH SUKARRA** gure herriko taldeak zuzeneko eskainiko du goizean gazteenentzat. Ondoren, **NAPOKA IRIA**ekin batera, Malenkonía, Aneika Ara, Hartzak Blues Band, Kometa eta The Iker Company taldeak, eta Aingeru Gorrotxategi, Igor Arzuaga eta Xabi Aburruzaga bakarlariak jardungo dute. Plateruenean, berriz, euskal kantagintzari buruzko kontzertua prestatu dute ikasleentzat goizean, eta gauetz **SU TA GAR** taldeak joko du lan berria aurkezteko. Barixakuan, abenduaren 6an, **MURSEGO** pasatuko da Ahotsenetik, Joseba B. Leinot, TikTara, Esne Beltza, Humus, Jexuxmai Lopetegi, Keu Agirretxea, McOnak, Izaki Gardenak eta Nekezekin batera. Egun horretan, Plateruena Kafe Antzokian, Iheskide eta Arkada Social taldeek lan berrienak zuzenera ekarriko dituzte. Zapatuan, aben-

duaren 7an, Begiz begi, Igelaeren banda, Antton Aranburu, Emon, Glaukoma, Eratu, Sermond's, Danba, Eñaut Elorrieta eta Odolaren Mintzoa taldeak izango dira Ahotsenean. Goizean, Plateruenak folk eta elektrofolk musikari egingo dio tarte, Zeze eta Aguxtin Alkhat taldeen emanaldiekin, eta gauean Urtz eta Kauta rock taldeen txanda izango da. Domekan, abenduaren 8an, amaitzeko, Anjel Unzu eta Txuma Murugarren, Nabil, Neighbot, Jokin Lasa, Los Galerna, Oreindik, Kasik, Iniña Coyoe eta Chico Tornado, Norman eta Lou Topet igoko dira Ahotseneako taulara. Berre aldetik, Plateruenak Amaia Urzainkik eta Enekorak emandako zuzenekoak hartuko ditu goizean, eta Azokaren 48. edizioari agurrak Korrontziren kontzertuak emango dio, 20.00etatik aurrera.



2011ko azoka

Traganarru



## Zortzi antzezlan maratoian

Zortzi antzerki talde, lau eguerdian eta lau iluntzean, bakoitza hamabost minutuko tartean, bakoitza bere obra osoaren mokadu bat eskainiz. Szenatokian egingo duten antzerki maratoiaren egitaraua osatuta dago. Abenduaren 7an, zapatuan, izango da maratoia eta hauek dira taularatuko diren antzezlanak: 12.00etatik 14.00etara, "Bidaia magikoa" (The True), "Traganarru" (Bada teatroa), "Kokakola eta Barea" (Xentimorik Gabe) eta "Inungane, sustriak airean" (Karrika); eta 18.00etatik 20.00etara, "Mikrouhinak" (Silvia Manzana eta Jon Ander Alonso), "Epa!" (Demode Quartet), "Hala ere maite nauzu" (Taupada) eta "Zu ere On Kixote?" (Agerre teatroa).

EMAKUMEA  
GARBITU eta  
METXAK

19,90  
€

EMAKUMEA - GIZONA  
GARBITU eta  
MOZTU

7,50  
€

EMAKUMEA  
GARBITU eta  
ORRAZTU

7,50  
€

EMAKUMEA  
GARBITU eta  
TINDATU

12,90  
€

Spejo's

ILEAPAINDEGIA | GIZONEZKOA  
EMAKUMEZKOA  
ESPAINIA - PORTUGAL - TXILE - MEXIKO - SAUDI ARABIA

ORAIN: El Corte Inglés | Ego Gain, 7  
TEL. 943 206 720 - EIBAR

## Etorkizuneko Errebalek erabilera anitzerako espazioa izango du

Portalean bezperan egindako aurkezpen publikoaren biharamunean, aurreko barixakuan, Miguel de los Toyos alkateak, M<sup>a</sup> Jose Telleria Garapen Ekonomikoa, Berrikuntza eta Enplegu zinegotziak eta Errebalgo prozesu partehartzailea koordinatu duten Monodestudio eta M-Etxeko ordezkariak herritarrekin batera egindako tailerretatik atera dituzten ondorio nagusiak azaldu zituzten prentsaurrekoan. Aste honetan bertan txostena interneten (udalaren webgunean) edozeinek kontsultatzeko moduan ipiniko dutela aurreratu zuten prentsaurrekoan, baina bien bitartean ondorio nagusiak laburbiltzen ahalegindu gara.

Urriaren 80-90 herritarrekin batera landutako tailerretan dendariak, alderdi politikoetako ordezkariak, Errebal inguruko bizilagunek, Errebal Pla-

taformako kideek, arkitektoek eta beste hainbatek hartu zuten parte eta horietatik ondorioztatutakoak lau bloke nagusitan laburbildu dituzte: bloke batean eraikinaren kokapena eta beteko duen azalera bereizi dute, beste batean eraikitzen denak inguruarekin izan beharreko harremana, hirugarren bloke batean egiten denaren inguruko erabilerak eta, laugarren blokean, kudeaketa nolakoa izan beharko lukeen zehazten dutenak.

Orohar, eta ondorio nagusien arabera, etorkizuneko Errebalean erabilera anitzerako eta ordutegi malguko espazio estali publikoa, merkatu plazako baserritarrak hartzeko tokia eta aparkalekuak egon beharko dira. Eraikinaren azalera ez ditu 2.000 metro karratuak gaindituko (lurzoruak 3.600 metro karratu dauzka) eta altueran ez du gaindituko El Casco-ren bigarren solairuak duena. Eraikinak erabilera anitzerako izan beharko dituen 1.000 metro karratuetan, besteak beste azokak, kultur eskaintzari lotutako ekitaldiak, asteroko azoka, herriko elkarteek antolatzen dituzten jarduerak, jaietako txosnak eta antzerako beste batzuk egiteko asmoa daukate. Biltegi batek, komunek eta ostalaritza establezimendu batek osotuko lukete ekipamendua.

Aisialdiari aparteko arreta eskain-



Monodestudio eta M-Etxea ibili dira Errebalean inguruko prozesua koordinatzen. SILBIA HERNANDEZ

tzeaz gain, tailerretatik atera duten beste ondorio garbi bat zuzenean baserritarrei lotutakoa da: "Zalantza genuen gai horren inguruan, baina tailerretan parte hartzen ibilitako jendeak oso argi laga zuen Errebalerako proiektuan merkatu plazako baserritarrentzat tokia egokitu beharra zegoela, eskaera zuzena egin zuten".

Horrekin batera, jendeak aisialdian erabiltzeko espazio publikoak, parkeak eskatu ditu. Horri erantzuteko batetik eraikinaren gainean parkea egitea aurreikusi dute eta, bestetik, Coliseo eraikinaren sarrerari arnasa emateko tokia, 800 bat metro karratuko espazioa sortzeko asmoa dagoela aurreratu dute. Proiektu osoa biribiltzeko parking publikoa eta garajeak egingo dira.

Udalak Errebalerako proiektua eraikitzeko lanak lehiaketara lehenbailehen atera nahi ditu, baina horren aurretik ideia lehiaketa deituko du, bertatik behin-betiko proiektua hartzeko eta horren arabera betebeharrekoen orria prestatu ondoren lanak lehiaketara atera ahal izateko.



# MUGIKA

Baimendutako Harategia  
Gure Kalitatea

Giokela

Urkizu, 18  
943120194

## HARATEGIA

**ONDO PASA Sanandresak!!!**

**ESPEZIALITATEAK: Odolkiak / Plater prestatuak**





# INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

30. zenbakia. 2013ko azaroa  
Publizitatea: Itziar Albizu eta Belen Ulazia.  
Tel. 943 20 67 76. Faxe. 943 20 28 72  
publizitatea@etakitto.com

## LEGARRE - GAIN, EIBAR



### VPO KOOPERATIBA ERREGIMENEAN

53,30 m<sup>2</sup>tik 61,87 m<sup>2</sup>-ra  
arteko etxebizitzak,  
garajea eta trasteroarekin

- 2 logelatako etxebizitza-adibidea,  
garajea eta trasteroarekin (V-5)

Sarrera: 24.717,92 € gehi BEZ

Hipotekatzeko gainontzekoa:  
83.676,37 € gehi BEZ

Kapital sozialerako ekarpena: 5.422 €

TELEFONOA: 943 46 22 16

MUGIKORRA: 610 55 45 85

- Garaje plaza behe solairu eta erdisotoan, marraduna
- 20,50 m<sup>2</sup>-tik 31,31 m<sup>2</sup>-rainoko superfiziek
- Prezioak 18.523 €-tik hasita (gehi BEZ)
- Entrega data: 2014ko 1. hiruilekoa

#### BERMATUTAKO KANTITATEAK

KUDEATZAILEA  
IGCVS, SA

FINANTZATZAILEA  
 CAJA RURAL  
DE NAVARRA

ERAIKITZAILEA  
 ANTZIBAR  
CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS



# Larragest

  
353 zbk.

INMOBILIARIA / ASEGURUAK

F. Calbetón, 22-24  
943 200 012  
690 610 715

# LARRAGEST. EIBAR

**HELBIDE BERRIA: Calbeton, 22-24 behea**  
**Tel. 943 20 00 12 / 690 61 07 15**

KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
Urkizu	74,40 m <sup>2</sup> . Pisu altua. Argitsua. Berrizteko. Igogailua ipintzen.	78.000 €
Errekatxu	3 logela. Guztiz berriztuta eta jantzita. Gazteentzako egokia.	132.000 €
Urkizu	3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Igogailua eta ganbara. Pisu altua.	163.000 €
Eulogio Garate	3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Kalefakzioa eta igogailua. Argitsua.	179.000 €
Errebal	Pisu handia. Berrizteko. Kalefakzioa eta igogailua. Trastero bi.	180.000 €
Birjiñape	3 logela, egongela, bainugela, komuna. Igogailua. Aukera ona.	215.000 €
Zuloagatarren	100 eta 150 m <sup>2</sup> tartekoak. 3/4 logelako etxebizitzak.	Galdetu
Legarre (dorrea)	3 logela. Argitsua eta balkoiarekin. Pisu altua.	Galdetu
Untzaga	4 logela, 2 komun, egongela balkoiarekin, sukaldea, ganbara. Eguzkitsua. Bista bikainak. Altua.	Galdetu
Muzategi	1/2/3 logelako etxebizitzak. Guztiz jantzita. Garajea eta trasteroa aukeran.	Galdetu
Jardiñeta	Berezia eta dotorea. Guztiz kanpora begira. Eguzkitsua. Bista bikainak.	Galdetu
Isasi	3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Igogailua kalean bertan. Garajea aukeran. Pisu altua.	Galdetu
J. Olabe (Ipurua)	4 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Igogailua eta ganbara. Garaje itxia aukeran.	Galdetu



**www.aukera-inmobiliaria.com**  
Aukerarik onena!  
**943 12 13 95 Bidebarrieta 29**



**INMOBILIARIA ESTUDIO  
PS XXI**  
Higiezin-zerbitzuak  
eta Barne arkitektura  
Tel./Faxa. **943 74 23 06** 20870 ELGOIBAR  
[www.inmobiliariapsxxi.com](http://www.inmobiliariapsxxi.com)

Arragueta, 2 bis B-behea  
943 20 08 60

agencia  
inmobiliaria  
**Juaristi**  
A.P.I.: Rosa Juaristi  
rosa@inmobiliariajuaristi.com  
[www.inmobiliariajuaristi.com](http://www.inmobiliariajuaristi.com)

- salerosketak
- errentamenduak
- balioztatzeak



**HIGIEZINAK  
ARREGI  
INMOBILIARIA**  
**Errebal, 20ra aldatu gara**  
Tel./Faxa. **943 203 333** Mobila. **656 766 344**  
[www.inmoarregi.com](http://www.inmoarregi.com)

943201213  
633483956

**IbaiOndo**  
inmobiliaria

Bidebarrieta 24, baxua

**ZURE INMOBILIARIA**  
[www.ibaiondoinmobiliaria.com](http://www.ibaiondoinmobiliaria.com)



**ETXEAK**  
zure esku  
...eta kitto!

**Hurrengo  
gehigarrian  
agertzeko  
deituiguzu:  
943 20 67 76**



ARDANTZABIDE

# Zumaia, azken esleipenak!

Erregistro iraunkorra  
udaletxean ireki da.  
**Izena eman!**

**Libre dauden etxebizitzak,  
planoak eta prezioak web  
gunean kontsultatu**

**Baldintza BERRIAK kontsultatu!**

Argibide gehiago hemen:  
**[www.ardantzabide.es](http://www.ardantzabide.es)**

**TERRAZA HANDIAK**



Zumaia Udala

**943 31 68 68**

[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

Finantzatzen du:



**sukia**

Zure etxean zaude.  
Estás en tu casa.

**ARIANA DELGADO** (hegazkin laguntzailea):

## "Dubain bizi direnen %30 baino ez dira bertakoak"

**Maiatzaz geroztik Dubain bizi da 25 urteko eibartar hau, hango hegazkin konpainia garrantzitsuenetariko batentzat azafata moduan beharrean. Australia, Txina, Japonia, Errusia... mundu osoan hegan, batetik bestera eman ditu azken hilabeteak, baina oporrak Eibarren igarotzea aukeratu du eta guk hori aprobeztatu dugu berarekin berba egiteko.**

**- Nolatan joan zara Dubaira beharrera?**

Nik Turismoa ikasi nuen, baina horretan jarduteko beharrik aurkitzen ez nuela ikusita, hegazkin laguntzaile izateko ikastaroa egitera animatu nintzen eta berehala ikusi nuen horretan jardun nahi nuela. Ikastaroa amaituta pare bat elkarrizketa egin nituen eta, beharra aurkitu nahi banuen ingelese hobetu behar nuela ohartu nintzen. Asmo horrekin Ingalaterrara joatea erabaki nuen. Hasieran herri txiki batean nengoan, baina hura niretzat ez zela ikusita Londresera joan nintzen. Eta han nengoela, Dubaiko konpainia baten lan-eskaintzaren berri izan nuen eta probetara aurkeztu nintzen, guztiak gainditu eta horrela lortu nuen lanpostua. Aurtengo maiatzaren 3an hegazkina hartu eta Dubaira joan nintzen.

**- Eta zerekin egin zenuen topo hegazkinetik jaistean?**

Hegazkina Madrilen hartu eta Dubaiko aireportura gauerdian ailegatu nintzen. Bertan nire zain egongo zirela esan arren, bertara

ailegatu eta hasieran ez nuen inor aurkitu. Bero handia egiten zuen, hezetan ikaragarria zegoen eta gainera aireportuan galduta ibili nintzen, pentsa! Baina hasierako une hori atzean lagata, Dubai telebistan agertzen den moduko hiria da.

**- Ailegatzen zaigun irudiaren arabera han luxua da nagusi. Horrenbestereinokoa da?**

Dubain bizi den populazioaren %30 baino ez da bertakoa, beste guztiak atzeritarak gara. Eta egia da luxu handia dagoela, baina beti erakusten den irudi horretatik kanpora Pakistan eta Indiatik bertara beharrera joandakoek oso bizimodu eskasa daukate, euren bizi-baldintzak benetan penagarriak dira. Bestela, atzeritar gehienak nire moduko hegazkin laguntzaileak dira, beste askok bankuetan eta dihardute beharrean, horrelako lanbideak dira nagusi.

**- Eta nolakoak dira zure lana eta bizimodua?**

Lana berez gogorra da, konpainiak mundu gutzira egiten du hegan eta batzuetan 13 orduko hegaldietan jardun behar duzu, bi-



diariei denbora osoan arreta eskaintzeko prest, beti irribartsu. Baina nik oso gustora dihardut, nire beharra asko gustatzen zait eta zorte handia daukat horretan jarduteko aukera dudalako. Konpainiak eraikin osoak dauzka gu bertan bizitzeko, eurek erabakitzen dute etxean zeinekkin batera bizi behar duzun eta horretan ere zorte handia izan dut, Greziako neska batekin batera bizi naiz eta oso ondo moldatzen gara elkarrekin.

**- Mundu osoan batetik bestera hegan egin arren, badaukazu tokiak ezagutzeko denborarik?**


Bai, normalean bost ordutik gorako hegaldietan gutxienez egun bat ematen dugu bertan. Besteak beste Bangkok, Tokio, Beijing, Shangai, Singapur, Sri Lanka, Mauricio uharteak, Praga eta Viena ikusteko aukera izan dut.

**- Eta zein gustatu zaizu gehien?**

Beijingo "hiri galdua" ikusgarria begitandu zitzaidan, Sri Lanka asko gustatu zitzaidan, baina aukeran Europako hiriak, Viena edo Praga modukoak nahiago ditut, agian bertako bizimoduak gurearekin antza gehiago duelako.

**- Egun gutxi barru Dubaira bueltatuko zara, baina noiz arte geratzeko?**

Berez hiru urterako kontratuarekin joan naiz, baina denbora hori igarota etxetik gertuago dagoen tokiren batean lan egitea gustatuko litzaidake.



## Beldur Barik herri mailako sariak banatu dituzte

Astlehenean, indarkeria matxistaren kontrako egunaren harira, hainbat ekitaldi egin ziren Eibarren: goizean indarkeria matxistaren kontrako karpa morea egon zen Untzagan, herriko emakumeen elkarteko ordezkarien eskutik eta 13.00ean "Indarkeria matxistaren aurrean, jabetu!" goiburuko pankar-



Gazteenen mailako irabazleak (12-17 urte). SILBIA HERNANDEZ

taren atzean elkarretaraztea egin zuten. Arratsaldean, berriz, Eibar Beldur Barik jaialdia egin zen Portalean: Pailaztana Klown Taldeak "La cenicienta que no queria comer perdices" ipuin kontakizuna eskaini eta gero, Beldur Barik lehiaketara eibartarrek aurkeztutako bideoak proiektatu eta jarraian Eibar mailako sariak banatu zituzten: 12-17 urte bitartekoen mailan Ainhoa Azkue, Elene Gisasola, Elene Varela, Lore Garrigaitia eta Malen Txurrukaren "Eibarko Gazteak ere beldur barik" saritu zuten eta 18-26 bitartekoen mailan Miren Oteiza, Irati Arriola eta Garazi Urzuriagaren "Eta zuk?". Saritutako lanez gain edizio honetan gure herriko beste hiru hauek aur-




Eibarko gazteek bost lan aurkeztu dituzte aurtengo lehiaketara. Behean, erdian, nagusien mailako irabazleak. SILBIA HERNANDEZ

keztu dira lehiaketara: "Zuzeu" (Amaia Otaola), "Nombres" (Ainhoa Bolinaga, Ainitze Bolinaga, Ane Azkue, Jone Barandika, Lorea Victoriano, Lucia Agirregomezkorta, Maialen Zubizarreta, Maider Carrasco, Marina Kruzelaegi, Marta Prol eta Nerea Lodosa) eta "Apurtu eguneroko menua"

(Laura Fernandez). EAE mailako sari-banaketa ekitaldia zapatuan, hilaren 30ean, egingo da, baina atzoz geroztik bideoei botoa emateko aukera dauka jendeak interneten ([www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org) helbidean bideoekin batera lehiaketaren inguruko informazio guztia dago).

## Armeria Eskolako ikasle onenei saria



Aurreko asteko egunean banatu zituzten Armeria Eskolako 2012-2013 ikasturteko Guraso

Elkartearen ikasketa sariak. Ikasleen espediente akademikoak begiratu eta baloratu on-

doren, argazkian ikusten dituzten ikasleek jaso zuten saria aurreko asteko ekitaldian: Maria Teba Fernandez (Mekanizazioa zikloan), Iñaki Chiches Rodriguez (Instalazio elektrikoa eta automatikoak zikloan), Alberto Susilla Peña (Diseinua fabrikazio mekanikoan zikloan), David Perez Cela, Francisco Diaz Benegas eta Melchor Benitez Benitez (Produkzioaren programazioa fabrikazio mekanikoan zikloan), Angel Barrio Ulanga (Telekomunikabide eta informatikako sistemak ziklo-

an), Luis Hurtado Murillo, Jaber Zuazolazigorraga Becarte eta Mikel Hernandez Arizaga (Erregulazio eta kontrol automatikoko sistemak zikloan), Xabier Garcia Ruiz Olivares, Gaizka Legaristi Litago eta Nekane Nieto Nieto (Produktu elektronikoen garapena zikloan). Horrez gain, Produkzioaren programazioa fabrikazio mekanikoan zikloa ikasi duen Javier Vicente Fernandezek Ikasketa Sari Berezia jaso zuen, "espediente akademiko bikaina iza-teagatik".

Saratsuegi, 5

943-257605

APARKATZEKO arazorik gabe

Restaurante La Jara



Menu bereziak ospakizun eta urtebetetze merendoretarako

Otlasko erre osoa, patata frijituarekin (10 €)

Eguneko menua (astelehenetik ostiralera)

Plater konbinatuak

Kazuelitik

Razioak

SANANDRESETARAKO MENUA

- Paletilla iberikoa
  - Gula eta mendreska entsalada epela pikilloen ozpin-olioarekin
  - Otarrainxkak plantxan
  - Bakailaoa bizkaitar erara (RAZIO ERDI)
  - Limoi-sorbetea txakolinarekin
  - Entrekota patata eta pikilloeki (RAZIO ERDI)
  - Postrea
  - Kafea, ura, krintza edo albariñoa
- 30 € + BEZ (%10)



*Gipuzkoako PSE-EEko Ingurumen idazkaria eta Donostiako udaleko zinegotzia atzo arratsaldean Eibarren egon zen Portalean hitzaldia ematen. "Gestion de residuos en Gipuzkoa: colapso y despilfarro" izenburuari jarraituta, besteak beste Gipuzkoa mailako hondakinen kudeaketak gure herriari nola eragiten dion azaldu zien bertara joandakoei. Azaroaren 13an Bilduk erraustegiaren eraikuntza-enprekin hitzarmena sinatu zuen 13'2 milioi euro (2.200 milioi pezeta) ordainduta ezer ez eraikitzeko. Hitzaldia aurkeztera etorri zela aprobetxatuta, azken aldian horrenbeste zeresan eta iritzi kontrajarri eragiten diharduen zaborren kudeaketaz berbetan jardun genuen.*



**DENIS ITXASO** -Gipuzkoako PSE-EEko Ingurumen idazkaria-

## “Liskarretik haratago, arazo gordina daukagu zaborrarekin”

**- Nola dago gaur egun hondakinen kudeaketa Gipuzkoan?**

Hitzaldiko izenburuak berak dioen moduan, kolapso egoeran gaude, berba horrek ezin hobeto adierazten du Gipuzkoak bizi duen egoera zein den. Arazoari konponbidea ipintzeko ahaleginak etenbarik oztopatzen dihardute eta, gainera, ez dute alternatibarik ematen, ez dute nahi ezta horiei buruz berba egiterik ere. Bien bitartean, arazoak areagotzen dihardu eta ezinbestekoa da zerbait egitea, gure zabortegiak lehertzeaz daude-eta, hiruzpatalau urtean gainezka egingo dute. Eta arazoa ingurumenari eragiteaz haratago ekonomiarik ere eragiten dio, dagoen krisiarekin beste gauza batzuetarako ondo baino hobeto etorriko litzatekeen diru publikoa ezer ez egiteko indemnizazioetan xahutzen dihardute-eta.

**- Norantza goaz? Arazoak badu konponbiderik?**

Orain planteatzen dutena ezker abertzalearena bakarrik da eta beste inork ez du horren alde egiten; helburu partidistari begira hartu dute erabakia, inongo perspektibarik gabe. Bilduren atzetik etorriko diren gobernu foralek aurretik egon diren konpondu barik lagatuko arazoa parreraparean aurkituko dute eta, ezertarako

denbora barik, emergentziatzeko neurriak hartuta konpondu beharko dute.

**- Errudunak zeintzuk diren argi daukazu, ezta?**

Arduradun nagusia Bildu dela uste dut, baina EAJ-k ere badauka bere ardura, Bilduri egindako kritikak aho txikiarekin egindakoak dira-eta.

**- Horrelako gaiak herri galdeketa bidez konpondu behar direla pentsatzen duzu?**

Nire ustez zenbait gauza konpontzea gobernuari dagokio, eta gobernuak berak erabaki beharreko kontu horietako bat zaborren kudeaketa da. Bestalde, Bilduk betidanik izan du bere burua oso demokratikotzat hartzeko joera, baina galdeketa herritarrek antolatu behar izatea oso sintomatikoa dela uste dut eta, gainera, boikot deigarria dihardute egiten, herritarren iritzia bizkarra emanda.

**- Gaia ez da larregi politizatu?**

Zalantza barik. Jendea aspertuta dago gaiarekin, baina Bilduk sortarazitako egoera honetatik haratago, benetan arazo gordina dago.

**“Atez-atekoari ikusten diodan arazoa inposaketa da. Gipuzkoan ezartzeak ez dauka zentzurik”**

**- Eta zein da zure proposamena?**

Gaiarekiko kezka eta kontzientziazioa areagotzen dihardute, baina kasurik onenean ipinita ere, argi dago gehiegi kontsumitzen dugula eta, beraz, gutariko bakoitzak zabor mordo sortzen dugula. Estatu mailako datuak begiratzen baditugu, birziklatze-tasarik altuena Gipuzkoari dagokio, baina hala ere ausardiaz jokatu behar dugu eta ahalik eta gehien konpostatu eta birziklatu, prebentzioan indarra egitea ezinbestekoa da. Europako herrialde aurreratuenen artean dagoen Austriar birziklapen-tasa %70ekoa da, baina oraindik ere moduren batean tratatu behar den %30eko zaborra sortzen da. Eta guri birziklapen maila horretara ailegatzeko oraindik falta zaigu.

**- Atez-atekoaren kontra zaude kasu guztietan?**

Atez atekoari ikusten diodan arazoa inposaketa da, Bilduk agintzen duen herrietan ezartzeko nahi hori toki bakoitzeko dentsitatea eta bestelakoak kontuan izan barik. Gipuzkoa orohar esparru urbanoa da eta horrelako populazio-dentsitatea duten herrietan horrelako zerbait ez dauka zentzurik. Jendea gaur egun erraz jarri behar zaizkio, birziklatzera animatzeko.

# BEZeRo GUZtiE<sub>N</sub>daKO

## SanAndRes ZORiontsuak!



**Kili Kili** Egunero  
07.00etan  
zabaltzen  
dugu

☎ **943 20 24 01**

- Eguneko menua
- Gosariak
- Plater konbinatuak

25 urte  
eibartar  
guztiokin

*Iturri*

*pintxo eta  
kazuelatxoak*

943 70 05 22




T. Etxebarria, 21  
Tel. 943 20 70 07

*Pintxoak  
eta  
kafea*

**ONGI-ETORRI**

**GURIDI**  
RUGBY

**GORA SANANDRESAK!!!**

Arkepe Isasi, 2

Gastro-Pub

TEL. 943-702691

- Gosariak 06.00etatik aurrera
- Sukaldea zabalik 09.00etatik aurrera
- Pintxo beroak eta razioak
- Karta (brasa)
- Gastro-pub

UNBE TABERNA

- \* Pintxoak
- \* Bokatak
- \* Bazkariak

Balle Otaola 33 ☎: 943 70 00 81

EGUNEROKO MENUA

**chalcha** 943 20 11 26

RESTAURANTE  
JATETXEA

[www.restaurantechalcha.com](http://www.restaurantechalcha.com)

**hirurok**  
TABERNA

Errekatxu, 1  
Tel. 943 56 72 06

Taberna - Snack  
**POZKARI**

*Pintxo beroetan eta  
hotzetan espezialistak*

J. Etxebarria, 11 ☎ 943 70 20 37  
EIBAR

## Pilotako bi jaialdi handi Astelenan zapatu eta domekarako

San Andres egunean Titinek eta Merino II.ak Jaunarena eta Zabaletari egingo diete aurre partidu nagusian. Errioxarren eta nafarren arteko lehiaren aurretik, Retegi BI eta Merinok Aritz Lasa eta Rezustaren aurka jokatuko dute eta, jaialdiarekin amaitzeko, Apezetxea eta Larrinagak Mendizabal III.a eta Peñagarikano izango dituzte aurrez-aurre. Hurrengo egunean, domekan, Bengoetxea VI.aren eta Mtz. de Irujoren artekoa ikusteko aukera izango dute zaletuek lau eta erdiaren barruan, eskuz pilotako enpresek antolatutako txapelketaren barruko finalerdian. Aurretik Berasaluze II.ak eta Aretxabaletak nor baino nor jardungo dute Xala eta Ce-



Titinek 30ean jokatu du.

cilioren aurka eta, amaitzeko, Apezetxea eta Rezustak Jaka eta Peñagarikanorekin borrokatuko dute. Bi partiduetarako sarrerak salgai daude honezkerok: aspepelota.com orrian lortu daitezke eta 661 259 009 (Olaya) telefono zenbakira deituta. San Andres egunean txarteldegia 12.00etatik 13.00etara zabalduko dute eta 16.00etatik aurrera.

## Cuevas zortzigarrena Donostiako Maratoian

Iaz irabazle izan bazen ere, aurten zortzigarren postuarekin konformatu behar izan du Asier Cuevasak. Eibarko atletak bestelako prestaketa darama eta une honetan ez dago bere sasoi onean. Hala ere, lasterketa ona egin zuen eta lehenengo euskalduna izan zen helmugan. Guztira 2.858 atletak amaitu zuten proba, bost orduren barruan, eta Carles Castillejo kataluniarra (2h12'43") eta Estela Navascues nafarra (2h32'38") izan ziren ira-

bazleak. Jarraian, Eibartik joandako 27 atleten sailkapena (emakume bakarra) eta egindako denbora:

8	Asier Cuevas	2h22'19"	1.322	Javier Etxaniz	3h26'32"
46	Eduardo De Miguel	2h35'20"	1.402	Juan Luis Azkune	3h27'45"
661	Andoni Mayo	3h06'44"	1.833	Ibon Martin	3h37'34"
719	Eduardo Uribe	3h08'38"	1.928	Ibon Arizaga	3h40'45"
773	Carlos J. Perez Obanos	3h10'16"	2.013	Fernando Arregi	3h44'20"
800	Jose M <sup>o</sup> Gutierrez	3h10'56"	2.159	Ernesto Gabancho	3h49'17"
833	Santiago Santamaria	3h11'49"	2.160	Iñaki Zubiaurre	3h49'21"
885	Iñaki Aldai	3h13'18"	2.208	Luis Manuel De Blas	3h51'05"
919	Iñaki Arosa	3h14'22"	2.482	Josu Trebiño	4h01'12"
1.108	Aitor Lameiras	3h20'26"	2.559	Oihana Aristondo	4h06'07"
1.131	Aitor Oiarzabal	3h21'16"	2.560	Daniel Salazar	4h06'09"
1.240	Juan Jose Malvar	3h24'55"	2.590	Ibon Muñoa	4h08'00"
1.271	Aitor Zubikarai	3h25'32"	2.768	Ignacio Vicuña	4h29'24"
1.321	Jose Manuel Aja	3h26'30"			



Asier Cuevas eta Elgoibarren bizi den Unai Narbaiza (87.a).

**Gabonetako OTARRA**

2.000€.. GABONETAKO OTARRA

1 €

### SALMENTA LEKUAK

- Arriaundi
- Bolintxo
- Depor taberna
- Ego Gain taberna
- El Corte Ingles
- ...eta kitto!
- Echetto - Urkizu
- Guridi taberna
- Isasi okindegia
- Izadi loradenda
- Kultu taberna
- La Golosina
- Maria Ospitxal
- Mugika harategia
- Ogi Berri - Urkizu
- Otegi harategia
- Udal Euskaltegia
- Untzaga prentsa
- Valenciaga
- Zubi-Gain taberna

### OTARREKO PRODUKTUAK

- 40'ko 'OKI' telebista
- 'Micsa' ezkur-urdaiazpikoa
- Solomo trufatua
- 'Don Bernardo Oro' gaztaria
- Salamankako ezkur-txorizoa
- Salamankako ezkur-saltxitxoia
- Ahate 'Delicass' foie-a
- 'Martika' Confit ahate-izterra
- 'Sierra Monesterio' ezkur-solomo zorroak
- Ahate jamoia
- 'Julian Martin' askatariko iberikoa
- 'Vasco Navarra' ardi gazta
- 'Sierra Monesterio' ezkur-jamoi zorroak
- Micuti 'Rougie' Gourmet
- 'Das Cafeteras' gozokiak
- 185 gramoko Chaika lata
- Pikillo piper saltsa. 278 ml
- 'El Barco' txokolata
- 'El Barco' txokolata zuria
- Madari osoa ardotan
- '1880' txokolata-almendra turroia
- 'La Higuera' piku bonboia
- 'Gorrotxategi' teiak
- 'C. Gourmet' turroi gogorra
- 'C. Gourmet' turroi biguna
- 'C. Gourmet' trufa-turroia
- 'Soles de Gredos' hojaldre txak
- 'Gyulian' itsas fruituak
- 'Cascajares' esne-bildots hanka
- Gin Tonic-erako espezia estutzea
- Champagne 'Bruno Paillard'
- Champagne 'Rosse Ruinart'
- Champagne 'Moet Chandon' estutzea
- Eskozia 'Chivas Regal' whisky-a
- 'Matusalem' rona. 23 botila.
- 'Plymouth' Ginebra
- 'Qtomic' 4 tonikako Paka
- 'Conde Osborne' Coignac-a
- 'Level' Vodka
- 'Marques de Riscal' 150 Aniversario ardo beltza
- 'Albariño Martin Codax' ardo zuria
- 'Julian Chivite 150 aniversario' ardo gorria
- 'Gourmet Blancos D. O.' zainzuriak
- 'D. O. Gourmet Frasco' piperrak
- 'D. O. Catedral Frasco' alkatzofak
- 'Thes D origin Le Palais' estutzea
- Jamaicako kafea
- 'Elfos' trufa zuri olio
- 'Elfos' trufa beltz olio
- 'Gourmandises' kokak
- 'L' Himalayen' gatz larrosa
- 2 'Ibardin' confit
- 2 'Lafite' confit

**BARIXAKUAN 19.30-20.30**  
T. Etxebarrian eta Calbetonen





## Eibar FT-ren kontuak gaur Portalean

Eibar FT-ko akzionistek urteroko batzarra egingo dute gaur Portalean, klubeko aurrekontuak onartzeko asmoz. Badago oraingoan indar berezia izango duen gaia: ekainerako klubak aurre egin behar dion kapital gehikuntzarena, milioi eta erdi euroak gaintitu dezakeen kopuruarekin. Azken denboraldiko kontuek balantze positiboa erakutsiko dute, maila igotzeaz gain taldeak Kopan Athletic kanporatu baitzuen eta Malagari aurre egin. Aurrekontuari dagokionez, azken ekitaldiko milioi eta 400 mila eurotik oraingo lau milioira egin du jautzia 2. A mailara igotzearekin batera. Abonatuen kopuruak gora egin du, gaur egun 2.700 lagunetik pasatuta. Hala



Batzarra 19.30etan hasiko da gaur Portalean. ARTXIBOA

ere, kapital gehikuntzarena ez da lan erraza izango; 1992an kluba elkarte anonimo bihurtu zenean Athletic-en laguntza behar izan zuen. Batzarrak, beraz, berebiziko garrantzia du.

## Aurrelaria aukeratzeko ordua Eibar FT-an

Garate, Arakistain, Etxabe, Llorente, Arenaza eta Altuna dira Eibar FT-ko 75. urtemugako ha-  
maikako ideala aukeratzeko bidean 9 zenba-

kiaren bila borrokatuko dutenak. Horretarako, bazkideek eta akziodunek aste honetan eman beharko dute botoa 1940-2015@sdeibar.com

helbidean. Aste honetako bozketaren ondoren, hegaleko ezkerren jabe egingo den izena bakarrik erabakitzea geratuko da. Eibarrek, bestalde, Mallorca hartuko du 18.00etan domekan.



Joseba Llorente



Jose M. Arakistain



Jose Eulogio Garate

## berriak

### ERRUGBIA

Espero zen moduan, partiduko gogorra jokatu zuten Eibar Hierros Anetxeok CRAT UDC-ren zelaian eta, talde bakoitzak bost kanporatze jaso ondoren, amore eman behar izan zuten Eibarko taldeak (27-24). Dena dela, defentsako bonus puntu bat eskuratu zuten.

### JUDO

Zapatuan, goiz eta arratsalde jardunaldian, 39. nazioarteko San Andres judo txapelketa jokatu da Ipurua kiroldegian. 09.30etan alebin eta infantil mailakoek hasiko dute torneoa eta 15.30etan infantil, kadete, junior eta senior mailakoek, emakumeek tartean.

### FOBALLA

Unben jokaturako lehen maila Erregionaleko partiduan, Armagiñak-ek 3-2 irabazi zion Urkiri herritarren arteko lehiari. Eibartarrak-ek, bestalde, 4-2 galdu zuen Soraluzen. Emaitza horiekin, Armagiñak 2. postuan dago, Urki bosgarrenean eta Eibartarrak zazpigarrenean.

**F. CALBETÓN, 23**  
TEL. 943 53 05 26

*Gosariak eramaten ditugu etxera asteburuetan*  
*Enkarguak etxera eramaten ditugu*

Ogietan aukera zabala Ogi beroa  
Tartak Pastelak Sanblasak  
Arrautzak Esnea  
Edariak Kafea  
Prentsa Aldizkariak

Egunero: 07.30-21.00 Jaiagunetan: 07.30-20.00

**Hemen, kalitatea**

**OGI BERRI**  
ARTESANOS PANADEROS

**FAMILIA ABOKATUA**  
ELENA MUGUERZA ORMAECHEA

**Familiako eta ondorengotzetako**  
**(herentziak) abokatua**

**Dibortzioak**

**Gaitasun-ezak**

**Ondorengotzak**

**Aitatasun erreklamazioak**

**Erregimen ekonomikoa**

Juan Gisasola, 4 - 2. eskuma  
94 661 22 00

## Bi lehia aizkolarien San Andreseko Gipuzkoa Poliklinika sarian

Gazteen artekoa eta helduena, bi lehia izango ditu Poliklinika Gipuzkoak babes-ten duen aizkolarien San Andresetako torneoak. Zaletasuna pizteko eta etorkizunera begira prestatutako lehian, aizkolaria gazteez osatutako bi bikoteren arteko norgehiagoka izango da Errebaleko parkingean, "sei kortera txanda librean, txapela zeinek atera". Iker Vicente (17 urte) eta Hodei Ezpeleta (14) izango dira alde batetik, eta Julen Larrea (17) eta Ioritz Gisolola (16) bestetik.

Bigarren lehian, helduenean, hiru bikote izango dira nor baino nor: Xabier Orbe- gozo "Arria V.ak" eta Alex Txikon mendizaleak osatuko dute bat, Daniel Vicentek

eta Amando Larreak bigarrena, eta Jesus Mari Mujikak eta Ernesto Ezpeleta "Bihurrik" hirugarrena: hirurak ere "neurri ezberdineko zortzi korteri egingo diote aurre, txanda librean". Iaz hasitako bidean, oraingoan ere Poliklinika Gipuzkoaren babes- izango du torneoak: "Eibartarrendik gero eta gertuen izateko eta herrikirolak bultzatzeko asmoz erabaki genuen parte hartzea. Aldi berean, osasun kardiobaskularren ereduaren alde egiteko aukera eskaintzen digu eta bizitza osasuntsuaren bidean apostu egiteko. San Isidroko torneoan ere hari horri tiraka dihardugu" diosku Conchi Russel Poliklinikako Komunikazio zuzendariak.



San Andreseko aizkolarien arteko saria 30ean jokatuko da, eguerdiko 12.00etan.



## Gazteak seniorrak baino hobeto waterpoloan

Aurten ez dute erraza izango Urvat-Urkotronikeko talde nagusikoek mailari eusten, asko igartzen baita maila aldaketa. Azken jardunaldian, C.D. Bilbao eibartarrak baino gehiago izan zen, 4-13 irabaziz igotzeko borrokan daudela erakutsita. Infantil eta kadete mailako taldeek, bestalde, Lautadari eta Kastellaeri gailendu zitzaizkien eta lidergoa eskuratu dute.

## Urkiko nesken nagusitasuna liderren arteko lehian

Legazpian jokatutako partiduan ligako bi liderrek neurtzen bazituzten indarrak, eibartarrak erraztasun handiz nagusitu ziren, azken markagailuak erakutsi zuen moduan: 1-10. Hirugarren zatian Ilintxakoen nekea baliatu zuten Urkikoek aldea handitzeko eta lidergoan bakarrik geratzeko.



## Somos-ek berdindu egin zuen Dominicosen kantxan

Eskubaloiko Eibarko lehen taldeak defentsan gogor eginez aragoiarren jaurtiketek euren helburua ez eskuratzeari lortu zuten. Lider bati dagokion indarra erakutsiz, eibartarrek 27na berdindu zuten Zaragozako kantxa zailan. Hala ere, ez zen izan denboraldiko

partidurik onena Somos Eibarkoentzat, irabazteko aukera ere eskura izan baitzuten. Domekan Trapagaran talde indartsua hartuko dute Ipuruan, eguerdiko 12.00etan hasiko den neurketan: irabazita lidergoa sendotu dezakete Fernando Fernandez mutilek.

MULTIABENTURA  
UBALEKUAK  
NAFAR PIRINIOAN

**URRATSAK**  
udalekuak

www.urratsak.com • info@urratsak.com

**Mauri** 

ITURGINA-FONTANERO Txonta, 13 - 4.

Instalatazile baimendua  
Gasa, Kalefakzioa, Aireak  
Sukaldeak eta Bainugelak

**T 649 829 033**

# BEZeRo GUZtiE<sub>N</sub>daKO

## SanAndRes ZORiontsuak!

943 20 67 65  
Bista Eder, 11



**Oishi**  
su beroa  
*jaletxea*

Eguneko menuak  
Bokatak  
Razioak  
Menu bereziak

# SLOW



Ego Gain, 10      943 25 41 33



**OISHI**  
PINTXO BEREZIAK

CATERING



943 20 29 55  
627 41 78 33  
Untzaga plaza

Onda pasau!

# XOK

# GURE LEKU

Isasi, 3  
20600 EIBAR      ☎ 943 20 71 89

# Ahara

Untzaga Plaza, Eibar  
943 043 782

# MAIXA TABERNA

Calbeton, 8

- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Kazuelitak
- Pizzak



# TXOKO

Giro alaiak      Sanandresetan!

**UNTZAGA PLAZA, 10**  
**20600 EIBAR**

# Beleko



Bista Eder 2

# JATETXEA

# Gurbi!

URTEBETETZE JAIK / GOSARIAK / EGUINEKO MENUA  
HITZARTUTAKO MENUAK / PLATER KONBINATUAK  
KARTA / HANBURGESAK / OTARTEKOK / ...

ORLUTEGIA: astelehenetik ostiralera (07.00-16.00 eta 19.00-22.00)  
larunbatetan (08.00-16.00 eta 18.00-itxi arte) igandetan (08.00-16.00)

Isasi, 1      Tel. 943 20 11 52



**MAITE ARROITAJAUREGI** (Mursego)

## “Hirugarren disko hau natural sortutakoa izan da”

Abenduaren 6an, barixakuan, aurkeztuko du Eibarko abeslariak bere hirugarren lana, “Hiru” izenekoa, hain zuzen. Mursego izenaren atzean ezkututzen den musikari esperimental oso pozik dago sortutakoarekin eta aurreko lanekin ikasitakoa bildu du lan berrian, horretarako erritmo afrikarrak, tropikalak eta hain berea den loop teknika baliatuta. Diskoa CD eta LP formatuan kaleratu du. Aurkezpena Durangoko Ahotsenean egingo badu ere, Bilbon izango du hurrengo hitzordua, abenduaren 13an.

**- Zer eskaintzen duzu hirugarren disko honetan? Nonbaiten irakurri dugunez, kantuak kantuago bihurtu dituzue?**

Aurreko bidetik jo dut eta orain arte egindako bi diskoetan proposatutako eskaintzari segida eman diot. Kantu borobilagoak egin ditudala uste dut; garapen pertsonal eta musikal baten emaitza da. 11 abestietan doinu afrikarrak aditu daitezke, folk popekoak, cumbiaren bat, eta baita hardcorea eta elektronika ere elkar hartuta. Oraingoan kantuak dira, ez hainbeste geruzak, aurrekoetan gertatzen zen moduan.

**- Oraingoan ekoizlea izan duzu. Asko lagundu dizu horrek?**

Bigarren diskoan ekoizle baten falta nabaritu nuen, baina Ibon Rodriguez ekoizle baino gehiago lagunmina dut. Askotan esaten dudana moduan, hiru belarri ditu eta asko daki musikaz.

**- Kantuetako hitzetan, zureak izanda ere, izan duzu laguntasunik, ezta? Baita kantatzerako orduan...**

Badira batzuk Victor Iriartek osatutakoak, eta beste bat Harkaitz Canok idatzitakoak. Gainera, Beñat Sarasola eta Mikel Aierberen laguntza ere izan dut hainbat testu orrazterakoan. Bestalde, Ibon Rodriguezek eta Xabier Montoiak ere parte hartu dute, bakoitzak abesti batean.

**- Zure jarraitzaileentzako ezustekorik egongo da?**

Ez dut uste, oso pertsonala eta berritzailea bada ere. Nituen kantuak atera ditut, nituen ideiak, modu oso naturalean: ez ditut disko baterako kantuak egin. Orain hori kaleratzea tokatzen zait eta diskoan dagoena jendaurrean erakustea.

**- Beste zezozteran bazabiltza une honetan?**

Azken aldian hainbat zereginetan ibili naiz: “Phantasma” ikuskizuna gauzatu nuen Rafa Berriorekin, Corcovadok kaleratuko duen disko berrirako kolaboratzen ibili naiz eta dantza egitasmo baterako abesti bat ere sortu dut. Baina orain nahikoa dut haurra zaintzarekin (ama izan da) eta diskoari irteera ematearekin.



Aurtengoa erakusketaren 44. edizioa da. LEIRE ITURBE

## Exfibar domekara arte ikusgai

Aurreko asteburuan Portalean zabaldu zuten Exfibar 2013 XLIV. Seilu erakusketan Arrate Filatelia Elkarteko Fidel Saez omendu zuten, 40 urtetan Exfibar antolatzen egindako lana eskertuz. Aurtengo edizioan ez da lehiaketarik egin eta domekara arte ikusgai egongo den erakusketan bildu dituzten seilu guztiak gure herrian egindako lehen abiazio probei eskeinitakoak dira eta zigilu-markarako gaia 1913an egindako jaialdia aukeratu dute. Erakusketak ordutegi berezia dauka: gaur eta bihar 18.00etatik 20.00etara zabalduko dute, zapatuan itxita egongo da (San Andres eguna delako) eta domekan, azken egunean, goizez (12.00etatik 14.00etara) eta arratsaldez (18.00etatik 20.00etara) bisitatzeko aukera izango da.

## Millan Salcedo Coliseoan

Abenduaren 13an, Millan Salcedo (Martes y Trece ohia) aktore komikoa Eibarren izango da, Coliseo antzokian “De verden cuando” ikuskizuna eskaintzen, 20.30etatik aurrera. Sarrerak 15 euro balio du eta alde zuzenetik erosteko aukera izango da, ohiko bideei jarraituta.



## Museoa Sta. Barbara ospatzen

Abenduaren 4an Santa Barbara, armaginen zaindariaren eguna ospatzeko, Eibarko Museoak ez die sarrerarik kobratuko bisitan doazenei. Portaleko 5. pisuan dagoen museoa 16.00etatik 20.00etara zabalduko dute. Sarrera doan izateaz gain, bisita gidatu berezia antolatu dute, nahi duten guztiak museoaren arima ezagutzeko aukera izan dezaten.

## Neskak protagonista 1eko bertso jaialdian

Urtero ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen San Andres bertso-jaialdia domekan, abenduaren 15ean, egingo da aurten. "Ez da kasualitatea" izenburuko saioan neskek bakarrik jardungo dute: Ainhoa Agirreazaldegia, Uxue Alberdi, Onintza Enbeita eta Alaia Martin bertsoariak osatzen dute jaialdiko kartela eta gai-jartzailea Amaia Agirre izango da. Bertsoariak musikarekin lagunduta jardungo dute. Portalean, areto nagusian egingo den jaialdia 18.30etan hasiko da, baina ordu erdi aurretik aurtengo San Andres



*Uxue Alberdik eta Alaia Martinek berriro errepikatuko dute aurten, oraingoan Agirreazaldegia eta Enbeitarekin. LEIRE ITURBE*

bertso-paper lehiaketako irabazleek saria jasoko dute eta bertso irabazleak abestuko dituzte. Jaialdirako sarrerak 5 euro balio du.

## Amurizarekin solasaldia Kultun abenduaren 12an

Abenduaren 12an Xabier Amurizaren hitzaldi-solasaldia hartuko du Arrate Kultur Elkarteak 19.00etatik aurrera. Amurizak "Joan ziren zazpi" bildumako laugarren eleberria, "4x4 operazioa" izenburukoa eta Eibarri buruzko aipamen asko dauzkan liburua aurkeztuko du. Bestalde, abenduaren 19an "Donostia 1813, hiru inperioren biktima" DVD berriaren proiektzioa eta hitzaldia eskainiko ditu Beñi Agirrek, Arrate Kultur Elkarteak, Einabarrekin batera antolatutako saioan.



## laburrak

### GAZTETAN NEGUAN 2013

Astixaren kudeaketaz, Eibarko Udalak irteera jarriko du martxan Donostiako Txuri Urdin izotz jauregira. Programa DBHko 1. eta 2. mailakoei dago zuzenduta eta irteera abenduaren 15ean egingo da. Izen-ematea abenduaren 2tik 8ra arte egin daiteke Indianokua Gaztelekuan, 18.00etatik 20.00etara. 15 euro ordaindu beharko da.

### ALTZOLAKO ARGAZKIAK

Altzolako aintzinako erretratuen erakusketa egongo da ikusgai Elgoibarko Kultur Aretoan abenduaren 4tik 14ra bitartean. Sasoi batean han zeuden bainuetxe, hotel eta bestelakoetan beharrez jardun ziren, tartean eibartar asko eta asko.

### OLENTZERORI GUTUNA

Astelehenetik aurrera Olentzerori idatzitako gutunak jasotzeko buzoiak egongo dira Pegoran eta Portalean, abenduaren 23ra bitartean umeei idatzitako gutunak bertan jasotzeko.

## ZURE AUKERA DA!

12 LEKU BAKARRIK



### ENERGIA ALORRERAKO TRESNA ELEKTRIKOEN GARAPENERAKO TEKNIKARIA

Izena eman ezazu 2013ko abenduaren 9a baino lehen Euskal Herriko LANBIDE sare osoan

**DATA:** Abenduaren 16tik 2014ko uztailaren 11ra arte (580 ordu) 15:30etatik 21:00etara

**INFORMAZIOA:** 943 20 32 44 / ikastaroak@armeriaeskola.com

**BETEBEHARRAK:** LHko Elektrizitatean, Elektronikan edo Ingeniaritzan goi mailako teknikariak

**ERABILGARRIA:** Energia-eraginkortasunean, automobilen, berriztagarrietan eta txartel eta ekipu elektronikoen diseinuan

## %100 SUBENTZIONATUTA

Langile eta, batez ere,  
langabetuei zuzenduta



[www.armeriaeskola.com](http://www.armeriaeskola.com)



Euskadi

## Ipini aurpegia Euskararen Egunean

Abenduaren 3an Euskararen Eguna dela-eta, aurten euskarari aurpegia ipini nahi diote eta, horretarako, egunerako antolatutako ekimenean ahalik eta jende gehienak parte hartzea komeni da. Izan ere, Udalak, AEK eta udal euskaltegiak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta herrian euskalgintzan diharduten gainontzeko elkarteek eibartarren aurpegiekin mosaiko erraldoia osatu nahi dute. Parte hartzeko nahikoa da goizeko 08.00etatik aurrera (eta 19.30ak baino lehen) udaletxeko sarrera edo patiora joatea eta bertan argazkia aterako diote. Argazkiak egiteaz gain, jendea euskararekin lotutako gogoetak idaztera animatu nahi dute eta, nahi iza-

nez gero, megafoniatik irakurtzeko aukera ere emango diete hala egin nahi dutenei. Egunean zehar ateratako argazkiekin mosaiko itxurako murala osatuko dute eta, horregatik, eibartar guztiak bertatik pasatu eta argazkia ateratzera animatu nahi dituzte antolatzaileek, "zenbat eta jende gehiago gerturatu, hobeto". Bestalde, euskararen inguruan idatzitako mezuak anonimoak izango dira eta Twitter eta Facebook bitartez zabaltzen joango dira: "Egun osoan udaletxeko balkoian megafonia martxan egongo da eta jendeak beste norbaitek idatzitakoa mikrofonetik irakurtzeko aukera izango du, kaleran dabilen jendeak entzuteko".



## Koktel-ikastaroa ...eta kitto!-n

Gorka Gonzalezen eskutik hainbat koktel egiten ikasteko aukera izango dute ...eta kitto! Euskara Elkarteak abenduaren 17rako (martitzena) antolatutako koktel-ikastaroan izena ematen dutenek. Parte hartzen dutenek orotariko koktelak, alkoholduak eta alkoholik gabekak nola prestatu ikasiko dute. Izena emateko lehen eguna datorren astelehena (abenduaren 2a) izango da eta izen-ematea abenduaren 13ra arte egiteko aukera izango da, beti ere gehieneko plaza kopurua (10-12 lagun) aurretik betetzen ez bada. Interesa duenak ...eta kitto!-ra telefonoz deituta (943200918) edo bulegora zuzenean joanda eman dezake izena. Ikastaroa arratsaldeko

19.00etan hasiko da ...eta kitto!-ren egoitzan (Urkizu, 11 solairuarean). Ikastaroaren prezioa 5 eurokoa da (...eta kitto!-ko bazkideentzat 4'50 euro).



## Teknologia berrien tailerrak

Haurrak teknologia berrietan murgiltzeko asmoarekin IKTailerrak antolatu dituzte. Izan-ematea abenduaren 2tik 16ra bitartean egin daiteke, Pegoran. Animazio bat egiten ikasteko tailerra LH-ko 4. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleentzat izango da eta txanda bi egongo dira, izena ematean aukeratzeko: lehen txanda abenduaren 26, 27 eta 28an emango dute, 10.00etatik 11.00etara edo 11.00etatik 12.00etara. Eta bigarrena urtarrilaren 2, 3 eta 4an, 10.00etatik 11.00etara edo 11.00etatik 12.00etara. Prezioa 6 eurokoa izango da.

Eta Inkscape eta Gimp tailerra DBH-ko 1. mailatik 4. mailara bitartekoentzat antolatu dute. Honetan ere txanda bi egingo dira, izena ematean aukeratzeko: abenduaren 26, 27 eta 28an (16.00etatik 17.30etara edo 17.30etatik 19.00etara) eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an (16.00etatik 17.30etara edo 17.30etatik 19.00etara). Prezioa 9 eurokoa izango da.



**Jorge Imaz Bolinaga**  
**KOMUNITATEEN**  
**ADMINISTRAZIOA**

**Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.**  
**Tlf. 943 53 03 03**  
**imazjorge@hotmail.com**

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK  
ITZULTZEN DITUGU,  
euskaratik gaztelarrera,  
gaztelerratik euskarara,  
eta ingeleseetik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IZAR, atzo lau urte bete zittuan gure etxeko printzesa ausartak-eta! Segi holan, txapelduna!



Zorionak, KONTXA. Ondo pasa zeure egunian: San Andres egun edarra ospatu... Berbetanekuen eta Ainhoaren partez.



Zorionak, JANIRE Lopez Moreno, abenduaren 7xan bost urte egingo dozuz-eta. Famelixakuen partez.



Zorionak, HAIZEA, zure laugarren urtebetetzian. Famelixaren partez.



Zorionak, JULE, abenduaren 3an sei urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ORIOL, San Andres egunian bi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat zure famelixaren partez.



Zorionak, LUR, atzo bi urte egin zenduazelako. Etxeko guztien partez.



Zorionak, OIHAN Goitandia, abenduaren 1ian bost urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARKEL, astelehenian hiru urte egingo dozuz-eta. Amama, osaba eta gurasuen partez.



Zorionak, MAITANE, bixar zazpi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HAIZEA Ibarra, gaur zazpi urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ALEJANDRO Merino Arnaiz, hillaren 20xan urtiak egin zenduaz-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, INHAR, abenduaren 3an urtetxua egingo dozu-eta. Muxu haundi bat etxekuen patrretik

## hildakoak

- Ignacio Larrañaga Orbegozo. 85 urte. 2013-X-27.
- Ramiro Blanco Delgado. 93 urte. 2013-XI-21.
- M<sup>a</sup> Carmen Esnaola Beitia. 58 urte. 2013-XI-21.
- Jesus M<sup>a</sup> Osa Barua. 64 urte. 2013-XI-21.
- Felix Uranga Uranga. 87 urte. 2013-XI-24.

## jaiotakoak

- Miren Untzetabarrenetxea Otxoa. 2013-XI-15.
- Daniela Kaperotxipi Orbea. 2013-XI-17.

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)  
**30ean: 19.15, 22.30**  
**1ean: 20.00**  
**2an: 20.30**

"Los juegos del hambre"


Zuzendaria: Francis Lawrence



(2 ARETOAN)  
**30ean: 19.15, 22.30**  
**1ean: 20.00**  
**2an: 20.30**

"Prisioneros"

Zuzendaria: Denis Villeneuve



(ANTZOKIAN)  
**1ean: 20.00**  
**2an: 20.30**

"Alaba zintzoa"

Zuzendaria: Javier Rebollo



## EGUENA 28

### ODOLA ATERATZEA

**18.30.** Odol-emaileentzat odol ateratzeko saioa. Anbulategian.

### HITZALDI-DASTAKETA

**19.00.** "Txakolina eta arabar Errioxako ardoa". Mikel Garaizabal eta Oskar Trebiño. Topalekuan.

## BARIXAKUA 29

### INDIANOKUA

**16.30.** Talo tailerra. Indianokua gaztelekuan.

### JAIK GAZTETXEAN

**19.00.** Trikipoteoa Untzagatik hasita.  
**21.30.** Bertso-afaria.  
**23.30.** Kontzertua: Sardeska. Gaztetxean.

### AZKEN OSTIRALA

**19.30.** Presoen aldeko giza-katea, Untzagatik.

### OMENALDI-AFARIA

**21.30.** San Andres maridaje afari berezia eta Mateo Guilaberti omenaldia. Krabelinen.

### SANANDRESAK

**23.00.** San Andres House Party: Gorku (Funk Off!). Hirurok tabernan.

## ZAPATUA 30

### AFTER SANANDRESAK

**06.00.** Borja eta Javidelove Dj-ak. Akats tabernan.

### SAN ANDRES EGUNA

**09.30.** XXXV. San Andres nekazal azoka (Untzaga-Txaltxa Zelai) eta ganadu erakusketa (Errebalean).  
**12.00.** Gipuzkoa Poliklinika Aizkolari Txapelketa. Errebalean.  
**12.00.** Narbaiza eta Gorrotxategi bertsolarien eta Jainaga eta Narbaiza trikitilarien emanaldia.  
**12.30.** Plazara Dantzara Erromeria.  
**13.00.** Lehiaketetako irabazleei sariak. Untzaga.

### JAIK GAZTETXEAN

**19.00.** Trikipoteoa Untzagatik hasita.  
**23.30.** Kontzertua: Iheskide eta Eutsi. Gaztetxean.

### SANANDRESAK

**23.00.** Aitor Mu (Kogollo Party Krew) Dj Set. Hirurok tabernan.

## DOMEKA 1

### KONTZERTUA

**12.30.** Elgoibarko Musika Banda. Coliseoan.

### INDIANOKUA

**17.00.** Talo tailerra. Indianokua gaztelekuan.

### BERTSO JAIALDIA

**18.00.** Bertso-paper lehiaketako irabazleei sariak banatzea.  
**18.30.** Bertso jaialdia: Ainhoa Agirreazaldegia, Uxue Alberdi, Onintza Enbeita eta Alaia Martin bertsolariak. Gai-jartzailea: Amaia Agirre. Portalean.

## ASTELEHENA 2

### EKITEN LAGUNDU

**09.30.** Enpresa sortu nahi dutenentzat doaneko tailerra. Portalean.

### IKASTEN

**16.00.** Sendabelarren Foroa: azitraia eta gaztainondoa. Portalean.

## MARTITZENA 3

### EUSKARAREN EGUNA

**08.00.** Mosaiko erraldoia osatzeko argazkia eta euskeraren aldeko mezuak idaztea. Udaletxean.

### IKASTEN

**10.00.** Hitzaldia: "Inmigrazioa", Iñaki Aierdi. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**17.00 eta 18.00.** Joskintza tailerra. Portalean.

## EGUAZTENA 4

### EKITEN LAGUNDU

**09.30.** Enpresa sortu nahi dutenentzat doaneko tailerra. Portalean.

### IKASTEN

**11.00.** Kafe-tertulia, gaurkotasunezko gai librearen inguruan. Untzagako jubilatuek etxean.

### SANTA BARBARA

**16.00.** Eguna ospatzeko Armagintzaren Museora sartzeari doan izango da. Portaleko Museoan.

### IKASTAROA

**18.00.** "Denbora nola kudeatu: ba al duzu unetxo bat?", doan. Portalean.

### HARTU&EMAN AZOKA

**18.30.** Elkartrukerako azoka. Gaztetxean.

## EGUENA 5

### IKASTEN

**10.00.** "La pareja" hitzaldia, Koldo Ortega. Armeria Eskolan.

### IKASTAROA

**17.00.** "Denbora nola kudeatu: ba al duzu unetxo bat?", doan. Portalean.

### ...ETA KITTOI-K 25 URTE

**19.00.** Aldizkariaren 25. urteurrena. Udaletxeko pleno aretoan.

## ZAPATUA 7

### HAUR PARKEA

**11.00/14.00 & 17.00/20.00.** Sarrera 3 euro, doan EMGI-ko bonoarekin. Astelena frontoian.

## ASTELEHENA 9

### EKITEN LAGUNDU

**09.30.** Enpresa sortu nahi dutenentzat doaneko tailerra. Portalean.

### IKASTEN

**10.00.** "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Toki.

### IKASTAROA

**18.30.** "Emozioen kudeaketa ekintzaileentzat: ikasi zure burua arrakasta zuzentzeko". Portalean.

## MARTITZENA 10

### IKASTEN

**10.00.** "Bioetica". Mabel Marijuan. Armeria Eskolan.

### EGOIZIA

**19.00.** "¿Voluntario? Voluntario... boluntario!!!" bideo aurkezpena. Portalea.

## EGUAZTENA 11

### EKITEN LAGUNDU

**09.30.** Enpresa sortu nahi dutenentzat doaneko tailerra. Portalean.

### IKASTEN

**09.30.** Mendi ibilaldia: Donostia- Herrera- Pasaia. Autobusean, Ego Gainetik.

### TAILERRA

**17.00.** Xaboa egiteko ikastaroa. Defibel elkarteak antolatuta.

### BILERA

**18.00.** Plan Estrategikoaren prozesu partehartzailearen ingurukoa (euskeraz). Udaletxeko patioan.

### HARTU&EMAN AZOKA

**18.30.** Elkartrukerako azoka. Gaztetxean.

## EGUENA 12

### IKASTEN

**10.00.** "Crecese ante los contratiempos". Adindu. Armeria Eskolan.


### HITZALDIA

**19.00.** Solasaldia. Xabier Amuriza. "4x4 operazioa" liburuaren aurkezpena. Arrate Kultur Elkartearen.

### MONOLOGOA

**22.30.** La Reno. Laurel&Hardy tabernan.





## erakusketak

### ✓ Azaroaren 30era arte

**SAHARARI** buruzko gida bibliografikoa eta **JOSE LUIS IRIGOIENEN** argazki erakusketa. Juan San Martin liburutegian.

**JUAN MANUEL LUCENAREN** "Panoramikak" argazkiak. *El Ambigú kafetegian.*

**KATALUNIAKO AFTDAO** (Berga) elkarteko argazkiak. *Klub Deportiboan.*

**JOSE IGNACIO DE CASTROREN** argazkiak. *Portalea tabernan.*

### ✓ Abenduaren 1era arte

**EXFIBAR** 2013 XLIV. Seilu erakusketa (ordutegi berezia). *Portalean.*

## ikastaroak

### ✓ Autoenplegu ikastaroa

- **Non eta noiz:** abenduaren 3ra arte, 15.30etatik 19.50etara. Armeria Eskolan. Izen-ematea eta informazioa: 943 20 32 44 / 688 691 388 telefonoetan eta urratsbat@armeriaeskola.com (Belen Guinea).

### ✓ Xaboi naturalak egiteko oinarrizkoa

- **Non eta noiz:** abenduak 11 (eguztarena), 17.00etatik 20.00etara Portalean. Izen-ematea eta informazioa: 648 977 587.

### ✓ Koktel ikastaroa

- **Non eta noiz:** abenduak 17 (martitzena), 19.00etan, ...eta kitto!-n (Urkizu, 11). Izen-ematea: **abenduaren 2tik 13ra**, ...eta kitto!-n (943200918 telefonoan). Prezioa: 5 euro (bazkideentzat, 4'5 euro).

## SUDOKUA

				6	8	3
		6	7			2
1	4		2			
2		3		5		
6						7
			6		2	9
				8		4
	5			9	7	
2	8	1				

## farmaziak

### ✓ barixakua 29

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

### ✓ zapatua 30

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

### ✓ domeka 1

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

### ✓ astelehena 2

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

### ✓ martitzena 3

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

### ✓ eguztarena 4

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

### ✓ eguena 5

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

### ✓ barixakua 6

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

### ✓ zapatua 7

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

### ✓ domeka 8

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

### ✓ astelehena 9

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

### ✓ martitzena 10

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

### ✓ eguztarena 11

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

### ✓ eguena 12

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

### ✓ barixakua 13

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisia salgai Barrena kalean. Erdi-jantzita eta oso merke. Tel. 669-690391.
- Presa dut pisua saltzeko Errekabatu kalean. 2 logelekoa. Kalefakzioa. Dena jantzita. Tel. 659-757572.
- Etxe berria salgai, Zumaiatik 5 km.-ra. 3 logela, egongela, sukalde eta 2 bainu. Jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. 200.000 euro. Tel. 620-099120.
- Hormigoizko pisua erosiko nuke Eibarren. 60.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 620-099120.
- Presa dut pisua saltzeko Amañan, ganbararekin. Dena kanpora begira. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio onean. Tel. 671-439939.
- Pisia salgai Amañan, elizaren ondoran. 3 logela, egongela, sukalde, kumuna eta ganbara. Dena kanpora begira. Berriztuta. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 600-092588.

### 1.2. Errentan

- Pisia hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 682-688813.
- Babes ofizialeko pisua alokagai Aso-la-igartza kalean. Atikoa, garajearekin. Prezioa inkilinoaren soldataren arabera (legez 336-394 euro artean egongo zen gehiengoentzat). Interesatuak Etxebiden izena emanda egon behar dute. Tel. 617-926344. Igor.
- Pisukidea behar da bi lagunekin etxea partekatzeko. Bidebarrieta kalean. Tel. 687-046386.
- Pisia errentan hartuko nuke Eibarren. Merke. Tel. 628-257956.
- Logela-apartamentua alokagai Eibarko erdialdean. Tel. 653-727067.
- 3 logelatako pisua hartuko nuke errentan. Gehienez 500 euro ordainduta. Tel. 632-337083.
- 2 logela alokagai Eibarko erdialdean. Tel. 669-179522.
- Logela hartuko nuke alokagai, sukalde erabiltzeko eskubidearekin. Tel. 660-833346.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

- Mercedes Benz E-320 CDI autoa salgai. 224 cv. 117.000 km. 2007. urtekoa. Egoera onean. Tel. 630-975501
- Bigarren eskuko Nissan Cabstar kamioneta (kaxa irekikoa) salgai. Egoera eta prezio onean. Tel. 605-738476.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garajea salgai Txomon. Marraduna. Tel. 658-710898.
- Lokala salgai Eibarko erdialdean. 25 m<sup>2</sup>. Tel. 671-258740.

### 3.2. Errentan

- Estetika zentroa transferitzen da Ermuan ezin delako atenditu. Jardunean eta bezero finkoekin. Tel. 642-868417.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 619-041821 eta 943-744033.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 600-332954 eta 943-700229.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-303237.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Informeak. Tel. 638-233739 eta 654-600249.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Informeak. Tel. 696-770120 eta 603-282700.
- Emakumea eskaintzen da edozein ordutegitan lan egiteko. Tel. 603-282700.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Informeak. Tel. 664-574504 eta 943-204140.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 628-425421. Santusa.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da tabernan zein jangelan kamarero jarduteko. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 686-052084.
- Mutila eskaintzen da garajeak, pegorak edo trasteroak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 943-257815.
- Neska eskaintzen da nagusiak gauzez zaintzeko. Tel. 666-008974.
- Neska eskaintzen da nagusiak gauzez zaintzeko eta orduka. Tel. 677-521374.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 608-866535.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Ordu-tegi zabala. Tel. 636-841158.
- Gizona eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta altzariak garraiatzeko. Tel. 660-213652.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 618-814064.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta gomendioak. Tel. 608-820954.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 689-798284.
- EGAdun andereño eibartarra eskaintzen da umeak zaintzeko. Bi urteko esperientzia haurreskolan. Tel. 635-201975.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 943-030863.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 600-332954.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-430198.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-372936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 690-925929.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
- Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 632-337083.
- Neska eskaintzen da plantxa egiteko. Tel. 632-950327.

- Mutila eskaintzen da gauzez gizon nagusiak zaintzeko. Tel. 632-210608.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko (farmazioa eta esperientziarekin) eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-179522.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-385949.

### 4.2. Langile bila

- Monitorreak behar dira igeriketako klaseak emateko. Tel. 688-610620.
- Kiromasajista eta fisioterapeuta behar da Eibarko ilepaindegi baterako. Lan-giro ona. Tel. 678-674250.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

- Ingeleseko irakaslea behar da LH1-eko ikasle batentzat. Astelehen eta eguaztenetan, 17.00etatik 18.00etara. Tel. 661-377537.

### 5.2. Eskaintzak

- Ingalaterratik etorritako neska ingelesezko klaseak ematen ditu. Maila guztiak. Ahozkoa lantzeko batez ere. Tel. 663-586212. Caitlin.
- DBH eta Batxilergoko ikasleentzako klaseak ematen dira. Tel. 669-954099.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, LP-ak eta single-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.
- Lehen jauntzea egiteko traje marineroko salgai. Beige kolorea, 14 neurrikoa. 75 euro. Tel. 630-686469.
- Sofa marroia salgai. 3 plazakoa. Cheslong -2'70-, somier -1,35-, relax laminak -1'35x1,90- eta koltxoia. Tel. 645-007388.
- Ohe artikulatua salgai. Koltxoia, azaleko ezkatzen aurkako lamina eta garbiarekin. la berria. Tel. 666-746661.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Pailazoetan lagatako koadrodun aterkin gorria eta 5-6 neurriko jertse beltza ...eta kitto-ln daude.

### 6.4. Bestelakoak

- Asteburuetan belaontzian nabigatzeko taldea osatzen ari gara. Tel. 605-751127.

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

# CAPI

## LASER DEPILAZIOA

30€

- Aurpegia
- Izterondoak
- Besapeak
- Bularra
- Sabelaldea ...

Hanka osoak  
+  
Izterondoak

90€

## Masajeak

OSTEOPATIA  
TEKNIKA METAMORFIKOAK  
MASAJE TERAPEUTIKOAK  
REFLEXOLOGIA  
MASAJEAK: THAI,  
KALIFORNIARRA, BALIKOA



## Gorputz tratamenduak

TEKNIKAK: Kabitazioa / Radiofrekuentzia / MINCEUR

Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

5 saioko **BONOAK** / Zona bat: 35 euro saioa



LEHEN

ORAIN

LEHEN

ORAIN



lehen

orain

BESOAK



lehen

orain

ESTRIAK

## Aurpegi tratamenduak

- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrekuentzia (zimurrak)
- **Mantxak (BERRIA)**



BETILE LUZAPENAK  
GEL ATZAZKALAK  
IA BETIRAKO  
MANIKURA

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

# ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan  
energia berriztagarriak  
erabiltzen ditugu*

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Ortutik mahaira:  
Bertako produktuetan  
erantzunik gertukoena

Orain Eibarko  
BM-n ere bagaude

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • [www.zeletabaserria.com](http://www.zeletabaserria.com)

# IZANE

## dekorazioa

Toribio Etxebarria, 17  
Telf: 943 203868



**%10**eko

**DESKONTUA**  
**GABONETAKO**  
**ARTIKULUETAN**

# DIRDAI

bitxitegia

Toribio Etxebarria, 21  
Tel. 943 20 75 33



*Finantziario formulak galdetu*



**GUESS**

**MICHAEL**  
**MICHAEL KORS**

**TOY WATCH**

**CUSTO**  
**ON TIME**

**Gc**  
SWISS MADE

極度乾燥(しなさい)  
**Superdry.**

**ALFEX**  
Swiss made